1.484 kasutan onartu da ordainketak zatikatu edo geroratzzea, eta ukatutako edo eskatzaileak atzera egindako espedienteak 620 izan dira guztira. Urte amaieran 129 espediente geratu dira ebazteke.

todos ellos se han concedido aplazamiento o fraccionamiento de pago a 1.484 casos y se han denegado o desistido un total de 620 expedientes. Al final del año han quedado pendientes de resolución 129 expedientes.

**GRÁFICO 6.9.GRAFIKOA**  
**Ordainketak geroratzeko espedienteen tramitazioaren bilakaera**  
 Evolución de la tramitación de los expedientes de aplazamiento



6.9. grafikoan ordainketak geroratu edo zatikatzeko espedienteen tramitazioak 1998-2001 epealdian izan duen bilakaera ageri da. Bertan argi eta garbi ikus daiteke gerorapenak zerga bulegoetan modu deszentralizatuan kudeatzea bere fruituak ematen ari dela; izan ere, ekitaldi honetan lehenengo aldiz lortu da urte amaieran ebatzi gabe dauden espedienteak murriztea eskaera kopuruak gora egin arren.

La evolución de la tramitación de los expedientes de aplazamiento y fraccionamiento de pago a lo largo del periodo 1998-2001 (gráfico 6.9.) muestra claramente que la gestión descentralizada de los aplazamientos en las distintas oficinas tributarias está dando sus frutos al ser el primer ejercicio en que, aunque se ha producido un mayor número de solicitudes, se han reducido los expedientes pendientes al final del año.

Aurkeztutako eskaerak 1999an eta 2000n jaitsi ondoren (%5,7 eta %5,2 hurrenez hurren), haien kopuruak gora egin du 2001ean (426 gehiago aurkeztu dira), urtearteko gehikuntza %26,5ekoa izan delarik.

Onartutako espedienteek antzeko bilakaera dute: kopurua lehen bi ekitaldietan jaitsi ondoren, 2001ean 540 espediente gehiago onartu dira, %57,2ko tasa emanez.

Ukatu eta atzera egindako espedienteek dagokienez, bestelako joera ageri dute: 1999an %9,3 jaitsi ondoren, hurrengo urtean %33,7 gehitzen dira, eta azken ekitaldian 17 espediente gutxiago daude, hau da, %2,7 jaitsi dira.

Abenduaren 31n ebatzi gabeko saldoak 1999an hasitako goranzko joera hautsi du, eta %35,5 gutxitu da 2001ean, ekitaldi amaieran 71 espediente gutxiago geratu baitira ebatzteke.

Gerorapenen kudeaketari buruz zutabetan jaso dugun xehetasunari erreparatuz gero, ikus dezakegu zertan gelditu diren ekitaldiaren hasieran ebatzi gabe zeuden espedienteak eta urtearen barruan aurkeztutakoak:

- Azken ekitaldian 540 espediente gehiago onartu dira (+%57,2), eta 1998tik 382 espediente gutxiagorekin metatutako beherakada gainditu da.
- Ukatuek eta atzera egindakoek 2000. urtean jotzen dute goiko muga 637 espedienterekin, eta azken ekitaldian %2,7 jaisten diren arren, oraindik aurreko bi urteetako espediente kopuruaren gainetik daude.
- Ekitaldi amaieran ebatzi gabeko saldoa lehenengo aldiz jaisten da epealdian, %35,5 hain zuzen ere.

Las solicitudes presentadas, tras los descensos de 1999 (5,7%) y de 2000 (5,2%), han aumentado en 426 su número a lo largo del último ejercicio con un incremento interanual del 26,5%.

La evolución de los expedientes concedidos muestra igual tendencia: hay un descenso en los dos primeros ejercicios, y posteriormente han aumentado en 540 expedientes en 2001 hasta alcanzar una tasa del 57,2%.


Con respecto a los expedientes denegados y desistidos, la tendencia es dispar puesto que, tras un descenso del 9,3% en 1999, aumentan un 33,7% al año siguiente, para volver a descender en 17 expedientes a lo largo del último ejercicio, lo que representa un decremento del 2,7%.

El saldo pendiente de resolver al 31 de diciembre rompe la tendencia ascendente iniciada en 1999, y disminuye en 2001 un 35,5%, con 71 expedientes menos pendientes de resolver, al final del ejercicio.

En el detalle de la gestión de aplazamientos recogida por columnas se aprecia el destino dado a los expedientes pendientes al inicio del ejercicio más los solicitados durante dicho año:

- Los expedientes concedidos aumentan en el último ejercicio en 540 (57,2%), superando el descenso acumulado de 382 expedientes desde 1998.
- Los denegados y desistidos tocan techo en 2000 con 637 expedientes, y aunque en el último ejercicio descienden un 2,7%, siguen por encima de los correspondientes a los dos años precedentes.
- El saldo pendiente de resolver al final del ejercicio desciende un 35,5% por primera vez en el periodo recogido.

**GRÁFICO 6.10. GRAFIKOA**  
**Ordaintzeko dauden zenbatekoak zerga moten arabera**  
**Importes pendientes por tipo de impuestos**



6.10. grafikoan ikus daiteke nola banatzen diren zerga moten artean 2001. urte amaieran mugaegunera iritsi gabeko epeen zenbatekoak. Funtsean, aurreko urte- etako banaketa berbera ageri da, hau da, zuzeneko zergak dira oraindik ere nagusi, nahiz eta pisu erlatiboak galtzen ari diren zeharkako zergen mesedean.

Urtearen amaieran epemugara iritsi gabeko epeek 73.684 mila euroko zenbatekoa eman dute (12.260 milioi pezeta). Hona hemen nola banatu diren:

- 46 mila euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (%0,1).
- 88 mila euro udal zergetan sortu da (%0,1), eta zehazki esanda:
  - . 53 mila jarduera ekonomikoen gaineko zergan.
  - . 31 mila hirilurreko kontribuzioan.
  - . 4 mila industrien lizentzia fiskalean.
- Gainerakoa Foru Aldundiak itundutako zergetatik dator:
  - . Zuzeneko zergek partaidetzarik handiena dute (%52,8), eta gehienak (%87,3) lanaren atxikipe- nak dira.
  - . Zeharkako zergek %42,8 biltzen dute, eta partai- detzarik handiena Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokio (%89,7).
  - . Gainerako %4,2a tasa eta bestelako sarreretatik dator. Hona hemen kontzeptu nagusiak:
    - Berandutza interesak (%42,8).
    - Zigorak (%39,4).

#### 6.4. FORU AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINIS- TRATIBOA

2001ean 1.504 erreklamazio aurkeztu dira guztira, eta 1.119 ebatzi. Ebatzitatearen artean emaitza hauek ageri dira:

- 108 onetsi dira.
- 192k onespen partziala izan dute.
- 684 ezetsi dira.
- 135 erreklamaziok bestelako emaitzak izan di- tuzte, hau da, ebazpen zehatzik gabe amaitu dira hainbat arrazoi direla medio:
  - . Epea iraungitzeagatik.
  - . Erreklamatzailerak atzera egiteagatik.
  - . Ondorioz gabe geratzeagatik.
  - . Abstenitzeagatik.
  - . Onartuak ez izateagatik.
  - . Eskumenik ez edukitzeagatik.
  - . Administrazioerikiko auzi bidetik errekurritze- atatik isiltasuna dela eta.

La distribución entre cada tipo de impuesto de los importes de los plazos pendientes de vencimiento al final de 2001 (gráfico 6.10.) presenta un perfil similar al de los años anteriores, manteniéndose los impuestos directos como los más elevados aunque siguen perdiendo peso relativo a favor de los indirectos.

Al final del año han quedado pendientes de ven- cimiento plazos por un importe de 73.684 miles de euros (12.260 millones de pesetas) con el siguiente reparto:

- 46 miles de euros al Gobierno Vasco (0,1%)
- 88 miles a los tributos locales (0,1%), concreta- mente:
  - . 53 al impuesto sobre actividades económicas.
  - . 31 a la contribución urbana.
  - . 4 a la licencia fiscal industrial.
- El resto corresponde a los tributos concertados por esta Diputación Foral:
  - . Los impuestos directos tienen la participación mayor al representar el 52,8%. La gran mayoría, el 87,3%, corresponde a las retenciones de trabajo.
  - . Los impuestos indirectos concentran el 42,8%, y dentro de ellos, la cuantía más importante es la del impuesto sobre el valor añadido, con una participación del 89,7%.
  - . El restante 4,2% proviene de las tasas y otros ingre- sos. Estos son los conceptos más representativos:
    - Los intereses de demora (42,8%).
    - Las sanciones (39,4%).

#### 6.4. TRIBUNAL ECONÓMICO-ADMINISTRA- TIVO FORAL

En 2001 se han interpuesto 1.504 reclamaciones, y se han resuelto 1.119 de las que:

- 108 han sido estimadas.
- 192 se han estimado parcialmente.
- 684 se han desestimado.
- 135 reclamaciones han tenido otros resultados, es decir, han concluido sin resolución concreta por:
  - . Caducidad.
  - . Desistimiento.
  - . Quedarse sin efecto.
  - . Abstención.
  - . No admisión.
  - . Incompetencia.
  - . Haber sido recurridas al contencioso por silencio.

Urtea amaitzean 1.655 erreklamazio geratu dira ebatzi gabe. Horietatik:

- 1.387 urte honen barruan aurkeztu dira.
- 268 erreklamazio lehenagotik datoz.

**Aurreko ekitaldietan ebatzi gabe geratu ziren erreklamazioetan** (ikus 6.11. grafikoa) kontzeptuak honela banatzen dira:

- Erreklamazio kopururik handiena zuzeneko zergek biltzen dute (%63,9), eta bi zerga nabarmentzen dira: errenta zerga eta ondarearen gaineko zerga.
- Zeharkako zergak kopuru osoaren %15,7 dira, eta BEZak hartzen ditu erreklamazio gehienak.
- Beste kontzeptuetan gainerako %20,5a metatzen da. Honako kontzeptuak satzen dira talde honen barruan: udal zergak, prezio publikoak, udal ordenantzak, sarrerak ordainarazteko aurkeztutako erreklamazioak, joko tasak eta beste hainbat kontzeptu. Portzentajerik handiena (%5,3) ondasun higiezinen gaineko zergan dago.


Al final del año han quedado pendientes de resolver un total de 1.655 reclamaciones de las que:

- 1.387 corresponden a las presentadas en este año.
- 268 son reclamaciones presentadas con anterioridad.

De las **reclamaciones pendientes de ejercicios anteriores** (gráfico 6.11.) los conceptos se reparten de la siguiente forma:

- Los impuestos directos, con el 63,9%, concentran la mayor acumulación de reclamaciones; destacan el impuesto sobre la renta de las personas físicas y el impuesto sobre el patrimonio.
- Los indirectos suponen el 15,7%, y es el IVA el que acumula mayor número de reclamaciones.
- El resto de conceptos aglutina el 20,5% restante. En este grupo se recogen los tributos locales, precios públicos y ordenanzas municipales, las reclamaciones interpuestas sobre ejecutiva de ingresos, las tasas de juego, y otros conceptos varios. El mayor porcentaje (5,3%) se encuentra en el impuesto sobre bienes urbanos.

**GRAFICO 6.11. GRAFIKOA**  
**Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren estatistikak**  
**Estadísticas del Tribunal Económico-Administrativo**



**Ekitaldian aurkeztutako erreklamazioak**, ordea, beste era batera banatzen dira. “Bestelakoek” taldeak kopuru handia metatzea dugu horren arrazoi,

Las **reclamaciones interpuestas en el ejercicio**, en cambio, presentan una distribución distinta debido al elevado número correspondientes al “Resto”, más con-

batik bat ondasun higiezinaren gaineko zergagatik, kopuru osoaren %47,3 hartzen dutelako. Kasu honetan, hauxe da banaketa:

- "Bestelakoak" taldeak %64,0 biltzen du.
- Zuzeneko zergak %30,1 dira.
- Eta zeharkako zergak %5,9.

**Ebatzitako erreklamazioei** dagokienez, ekitaldi hasieran duten proportzio berberari eusten diote:

- Zuzeneko zergak %65,0 hartzen dute, eta %58,2 errenta zergari eta ondarearen gaineko zergari dagokie.
- Zeharkako zergak %13,6 dira.
- Gainerako kontzeptuei ebatzitako erreklamazioen %21,4 dagokie.

Azkenik, ekitaldi amaieran **ebatzi gabe geratu diren erreklamazioek** urtearen barruan aurkeztatutakoaren pareko banaketa dute, ebatzitako erreklamazio gehienak aurreko ekitaldietatik datozeelako. Espedienteak honela banatu dira:

- %61,1 "Bestelakoak" taldeari dagokie.
- %32,4 zuzeneko zergak dira.
- Gainerako %6,5a zeharkako zergen erreklamazioetatik dator.

6.12. grafikoan Auzitegiaren jarduketak 1993-2001 epealdian izan duen bilakaera erakusten da. Bertan ikus daiteke bere jarduerak hobera egin duela; izan ere, aurkeztutako erreklamazio kopurua urtero gehitu arren (azkenekoetan izan ezik), ebatzitako erreklamazioak proportzio handiagoan igo dira, eta ebatzteko gelditu direnek, beraz, igoera txikiagoa izan dute; gainera, 1996tik aurrera ekitaldi guztietan jaisten dira.

Aldiz, 2001ean joera hori eten egiten da eta aurkeztutako erreklamazioak nabarmen gehitu dira (%112,7); aldi berean erreklamazio gutxiago ebatzi direnez, ekitaldi amaieran ebatzi gabe gelditu direnak %30,3 igo dira horren ondorioz.

Aurkeztutako erreklamazioetan gertatzen den bezala, ebatzi diren espedienteen kopuruan ere bi epealdi bereizi daitezke:

- Lehenengoa 1993-1997 bitartekoa da, eta horretan ebatzitako erreklamazio kopuruak etengabe egiten du gora, portzentajea gero eta txikiagoa bada ere.
- Bigarren epealdian, 1998-2001 bitartekoa, joera aldatzen da: erreklamazio gutxiago hasten dira ebatzen eta tasa negatiboak ageri dira: -%27,0koa 1998an, -%2,6koa 1999an, -%17,7koa 2000. urtean, eta -%14,6koa 2001ean.

cretamente derivadas del impuesto sobre bienes inmuebles, que han acumulado el 47,3% del total. Así, la distribución es la siguiente:

- El grupo "Resto" representa el 64,0%
- Los impuestos directos el 30,1%
- Los impuestos indirectos el 5,9%

En cuanto a las **reclamaciones resueltas** mantienen la misma proporción que la de las existentes al inicio del ejercicio:

- Los impuestos directos concentran el 65,0%, correspondiendo al impuesto sobre la renta y al impuesto sobre el patrimonio el 58,2%.
- Los impuestos indirectos representan el 13,6%.
- Al resto de los conceptos le corresponde el 21,4% de las reclamaciones resueltas.

Por último, las **reclamaciones pendientes** de resolución al final del ejercicio muestran una distribución similar a la de las interpuestas en el año dado que la mayoría de las reclamaciones resueltas provenían de ejercicios anteriores. El reparto de expedientes es el siguiente:

- El 61,1% corresponde al "Resto".
- Un 32,4% son impuestos directos.
- El 6,5% restante son reclamaciones de impuestos indirectos.



La evolución de la actuación del Tribunal en el periodo 1993-2001 (gráfico 6.12.) pone de manifiesto una mejora en la actividad ya que, aunque cada año, salvo en los últimos, han ido aumentando las reclamaciones interpuestas, las reclamaciones resueltas lo hacen en mayor proporción, por lo que las pendientes de resolución tienen un incremento menor y a partir de 1996 disminuyen en todos los ejercicios.

Sin embargo, en 2001 se interrumpe esta tendencia con un fuerte aumento de las reclamaciones interpuestas (112,7%); lo que, junto al descenso de las resueltas, ha traído como consecuencia el que las reclamaciones pendientes al final del ejercicio aumenten un 30,3%.

En la evolución del número de expedientes resueltos, al igual que con las reclamaciones interpuestas, se pueden diferenciar dos periodos:

- El primero (1993-1997) muestra un aumento constante del número de reclamaciones resueltas aunque el porcentaje tiende a ser cada vez menor.
- En el segundo periodo (1998-2001) se cambia de tendencia empezando a resolverse menos reclamaciones, y a presentar tasas negativas, concretamente el -27,0% en 1998, el -2,6% en 1999, el -17,7% en 2000 y el -14,6% en 2001.

GRAFICO 6.12. GRAFIKOA  
**Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren jardueraren bilakaera**  
 Evolución de la actuación del Tribunal Económico-Administrativo



Horren ondorioz, ebatzi gabeko erreklamazioek gero eta bariazio tasa txikiagoak dituzte lehen bi ekitaldietan, eta 1996tik aurrera negatibo bihurtzen dira, azken ekitaldian berriz ere tasa positiboa ageri den arte. Hona hemen zehazki:

- 1994an %13,6koa da eta 1995ean %3,2koa.
- 1996tik aurrera, ekitaldi amaieran ebatzi gabeko erreklamazioen kopuru osoa aurreko urtekoa baino txikiagoa da, eta joera hori apurka apurka areagotzen da:
  - . 1996an %4,3 jaisten da.
  - . 1997an areago gutxitzen da (%7,9).

Como consecuencia de todo ello, las reclamaciones pendientes tienen tasas de variación interanual cada vez menores en los dos primeros ejercicios, tornándose negativas a partir de 1996, hasta el último ejercicio en que vuelve a ser positiva. Concretamente:

- Pasan de un 13,6% en 1994 a un 3,2% en 1995.
- A partir de 1996 el número total de reclamaciones pendientes al final del ejercicio es inferior al del año anterior, acentuándose esta tendencia paulatinamente:
  - . En 1996 disminuyen un 4,3%.
  - . En 1997 el descenso es mayor (7,9%).

- . 1998an  $-17,5\%$ eko tasa dago.
- . 1999an ere negatiboa da ( $-26,7\%$ ).
- . 2000n beherakadarik handiena dugu  $-32,2\%$ ko tasarekin.

- Azken ekitaldian, ordea, ebatzi gabeko erreklamazioak  $30,3\%$  gehitu dira aurkeztutakoak asko igotzearen ondorioz. Guztira 385 erreklamazio gehiago gelditu dira ebatzi gabe, 1999an izandako kopurura iristen ez badira ere.

- . En 1998 la tasa es del  $-17,5\%$ .
- . En 1999 es un  $-26,7\%$ .
- . En 2000 alcanza el mayor decremento ( $-32,2\%$ ).

- En el último ejercicio, en cambio, al hilo del fuerte aumento de las reclamaciones interpuestas, las reclamaciones pendientes aumentan un  $30,3\%$ , 385 reclamaciones pendientes más que en el ejercicio anterior, aunque se sitúa por debajo del nivel de 1999.

## 6.5. LEGE AHOLKULARITZA

Lege aholkularitza zerbitzuak 2001ean egindako kudeaketan hiru jarduera eremu bereiz daitezke:

- Jarduketa judizialak.
- Jarduketa estrajudizialak.
- Ordezkarien erregistroarekin lotutako jarduketak.

**Jarduketa judizialen** alorrean, honela banatu da urtean egindako lana:

- $95,1\%$  administrazioarekiko auzi errekursoengatik auzitegietan egindako defentsak dira. Zerbitzuak 213 errekurtsotan hartu du parte.
- Gainerako  $4,9\%$ a jarduketa hauen artean banatuta da:
  - . Kiebrako sei prozedura konkurtsaletara joan da.
  - . Prozedura penalei buruzko bost kasu defendatu dira auzitegietan.

## 6.5. ASESORÍA JURÍDICA


La gestión realizada en 2001 por el servicio de asesoría jurídica se puede distribuir en tres ámbitos de actividad:

- Actuaciones judiciales.
- Actuaciones extrajudiciales.
- Actuaciones relacionadas con el registro de representantes.

A lo largo de este año las actividades relacionadas con **actuaciones judiciales** se han distribuido así:

- El  $95,1\%$  corresponde a la defensa en los tribunales derivada de recursos contencioso-administrativos. Concretamente han participado en 213 recursos.
- El restante  $4,9\%$  se ha repartido entre las siguientes actuaciones:
  - . Se ha acudido a seis procedimientos concursales por quiebra.
  - . Se han defendido ante los tribunales cinco casos sobre procedimientos penales.

GRAFICO 6.13. GRAFIKOA  
Lege Aholkularitzaren estatistikak. Jarduketa judizialak  
Estadísticas de la Asesoría Jurídica. Actuaciones judiciales



**Jarduketa estrajudizialak** ondoko hauek izan dira:

- 1.300 kontsulta telefoniko.
- 800 aitorten kudeatzea.
- 498 txosten prestatzea.
- 496 idatzi hainbat gai direla-eta.
- 476 abal askiestea.
- 459 foru agindu proposatzea.
- Gainerako jarduketek hauxe izan dute helburu:
  - . Prozeduren etendurari buruzko 39 jakinarazpen bidaltzea.
  - . Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren 11 bilkuretan parte hartzea eta bertan 1.331 ebazpen aztertzea.
  - . Hiru kontsulta batzordetan eta bi kooperatiba batzordetan parte hartzea.
  - . Erabakiak proposatzea.
  - . Espedienteak egitea.
  - . Errenta eta Hirilurreko kobrantzak baimentzea.

Dentro de las **actuaciones extrajudiciales** se encuentran:

- 1.300 consultas telefónicas.
- La gestión de 800 declaraciones.
- La realización de 498 informes.
- 496 escritos varios.
- 476 bastanteos de avales.
- 459 propuestas de Órdenes Forales.
- Las restantes actividades se han destinado a:
  - . 39 notificaciones de suspensión.
  - . Participar en 11 sesiones del Tribunal Económico-Administrativo Foral en las que se han analizado 1.331 resoluciones.
  - . Participar en tres comisiones de consulta y en dos comisiones de cooperativas.
  - . Propuestas de Acuerdos.
  - . Realización de expedientes.
  - . Autorizaciones para el cobro de Renta y Urbana.

**GRAFICO 6.14. GRAFIKOA**  
**Lege Aholkularitzaren estatistikak. Jarduketa estrajudizialak**  
 Estadísticas de la Asesoría Jurídica. Actuaciones extrajudiciales





GRAFICO 6.15. GRAFIKOA  
**Lege Aholkularitzaren estatistikak. Ordezkarien erregistroa**  
 Estadísticas de la Asesoría Jurídica. Registro de representantes



Azkenik, **Ordezkarien Erregistroarekin lotuta burutu diren jarduketak** hauek izan dira:

- Izena emanda dauden ordezkariekin zer ikusia dutenak.
- Agirien konpulsua.
- 91 apud acta.
- Ahalordeak askiesteko 75 ekintza.
- 36 baja erregistroan.
- 35 idatzi hainbat gai direla-eta.

Por último, las **actuaciones relacionadas con el Registro de Representantes** se han dirigido a:

- Actividades relacionadas con los representantes inscritos.
- Compulsa de documentos.
- 91 apud actas.
- 75 bastanteos de poderes.
- Gestión de 36 bajas del registro.
- 35 escritos varios.

**E.6.1. TAULA IKUSKARITZA KUDEAKETAREN EMAITZEN LABURPENA KONTZEPTUEN ARABERA**  
**CUADRO E.6.1. RESUMEN DE RESULTADOS DE LA GESTION INSPECTORA POR CONCEPTOS**

ZERGA KONTZEPTUAK CONCEPTOS TRIBUTARIOS	KOP. (* Nº CONTR.	KUDEAKETAREN EMAITZAK RESULTADOS DE LA GESTION					ZERGA ZOR BALIOKIDEA (**) DEUDA TRIBUTARIA EQUIVALENTE 6=3+4+5"
		Kuotak	Interesak eta Errekarguak	Ordaindu behar- reko zerga zorra	Itzultzeko kuota- ren murrizketa	Konpen. beharreko o.e.aren murrizketa	
		Cuotas	Intereses y Recargos	Deuda tributaria a ingresar	Reducción cuota a devolver	Reducción B.I. a compensar	
		1	2	3=1+2	4	5	
Lan atxikipenak							
Retenciones de trabajo	34	864.199	96.391	960.590	3.782		964.372
Kapital higikorren atxikipenak							
Retenc. capital mobiliario	6	2.437.273	91.778	2.529.051			2.529.051
Errentaren kuota difer. garbia							
Cuota diferencial neta de IRPF	576	11.726.291	2.479.736	14.206.027	62.052	631.679	14.552.335
Sozieteen kuota difer. garbia							
Cuota difer. neta de Sociedades	75	12.973.068	2.173.487	15.146.554	214.053	820.574	15.647.808
Oinord. eta dohain. g/zerga							
Imp.s/sucesiones y donaciones	3	9.659	2.329	11.989			11.989
Ondarearen gaineko zerga							
Imp. sobre el patrimonio	62	140.272	10.805	151.076			151.076
ZUZENeko ZERGAk, GUZTIRA							
TOTAL IMPUESTO DIRECTOS		28.150.761	4.854.527	33.005.288	279.887	1.452.254	33.856.632
BEZ							
IVA	147	4.850.283	687.297	5.537.580	246.069		5.783.648
Ondare eskualdaketen g/zerga							
Imp. s/transm. patrimoniales	5	26.135	4.433	30.568			30.568
Zerga bereziak							
Impuestos especiales	7	399.126	11.637	410.763			410.763
ZEHARKAKO ZERGAk, GUZTIRA							
TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS		5.275.544	703.366	5.978.910	246.069	0	6.224.979
Jarduera ekonomikoan g/zerga							
Imp.sobre actividades económicas							
UDAL ZERGAk, GUZTIRA							
TOTAL TRIBUTOS LOCALES	0	0	0	0	0	0	0
ZERGA ITUNDUAK, GUZTIRA							
TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	0	33.426.305	5.557.893	38.984.198	525.956	1.452.254	40.081.611
Zigorrak. Urraketa larriak							
Sanciones infracciones graves	791			7.838.034			7.838.034
Zigorrak. Urraketa arinak							
Sanciones infracciones simple	25			4.321			4.321
ZERGA ZORRA, GUZTIRA							
TOTAL DEUDA TRIBUTARIA	528	33.426.305	5.557.893	46.826.554	525.956	1.452.254	47.923.966

Zenbatekoa eurotan / Importe en euros

(\*) Zerga kontzeptu ezberdinengatik akta bat baino gehiago duten zergadunak daudenez, ikuskatutako zergadunen kopurua kontzeptuka dauden zergadunak batzetik ateratako kopurua baino txikiagoa da

(\*) El total de los contribuyentes inspeccionados resulta inferior a la suma del nº de contribuyentes por conceptos debido a que hay contribuyentes con actas por varios conceptos tributarios

(\*\*) Zerga zor baliokidea ondorengo guzti hauen batuketa da: ordaindu beharreko zorra, eskatutako itzulketa kuotaren murrizketa eta konpentsatu beharreko oinarri zergagarrien murrizketari dagokion zerga zor baliokidea. 5"ek zutabe horri dagozkion kontzeptuen zerga zor baliokidea ordezkatzeko du

(\*\*) La deuda tributaria equivalente es la suma de la deuda tributaria a ingresar, la reducción de la cuota a devolver solicitada y la deuda tributaria equivalente que corresponde a la reducción de las bases imponibles a compensar representado por 5".

**E.6.2. TAULA IKUSKARITZAKO AKTA GUZTIEN AZALPENA KONTZEPTUEN ARABERA. PERTSONA FISIKOAK**

**CUADRO E.6.2. DETALLE DE ACTAS DE INSPECCIÓN POR CONCEPTOS. PERSONAS FÍSICAS**

ZERGA KONTZEPTUAK CONCEPTOS TRIBUTARIOS	KOP. (*) Nº CONTR.	KUDEAKETAREN EMAITZAK RESULTADOS DE LA GESTION					ZERGA ZOR BALIOKIDEA (**) DEUDA TRIBUTARIA EQUIVALENTE 6=3+4+5"
		Kuotak Cuotas 1	Interesak eta Errekarguak Intereses y Recargos 2	Ordaindu behar- reko zerga zorra Deuda tributaria a ingresar 3=1+2	Itzultzeko kuota- ren murrizketa Reducción cuota a devolver 4	Konpen. beharreko o.e.aren murrizketa Reducción B.I. a compensar 5	
Lan atxikipenak							
Retenciones de trabajo	9	356.795	31.962	388.757	3.782		392.538
Kapital higikorren atxikipenak							
Retenc. capital mobiliario				0			0
Errentaren kuota difer. garbia							
Cuota diferencial neta de IRPF	576	11.726.291	2.479.736	14.206.027	62.052	631.679	14.552.335
Sozieteen kuota difer. garbia							
Cuota difer. neta de Sociedades				0			0
Oinord. eta dohain. g/zerga							
Imp.s/sucesiones y donaciones	3	9.659	2.329	11.989			11.989
Ondarearen gaineko zerga							
Imp. sobre el patrimonio	62	140.272	10.805	151.076			151.076
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA							
TOTAL IMPUESTO DIRECTOS		12.233.016	2.524.833	14.757.849	65.834	631.679	15.107.939
BEZ							
IVA	71	1.042.440	353.977	1.396.417	6.564		1.402.981
Ondare eskualdaketan g/zerga							
Imp. s/transm. patrimoniales	5	26.135	4.433	30.568			30.568
Zerga bereziak							
Impuestos especiales	2	15.903	3.227	19.130			19.130
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA							
TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS		1.084.478	361.637	1.446.115	6.564	0	1.452.679
Jarduera ekonomikoen g/zerga							
Imp.sobre actividades económicas				0			0
UDAL ZERGAK, GUZTIRA							
TOTAL TRIBUTOS LOCALES		0	0	0	0	0	0
ZERGA ITUNDUAK, GUZTIRA							
TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS		13.317.494	2.886.470	16.203.963	72.398	631.679	16.560.617
Zigorrak. Urraketa larriak							
Sanciones infracciones graves	599			3.558.803			3.558.803
Zigorrak. Urraketa arinak							
Sanciones infracciones simple	21			3.275			3.275
ZERGA ZORRA, GUZTIRA							
TOTAL DEUDA TRIBUTARIA	379	13.317.494	2.886.470	19.766.042	72.398	631.679	20.122.696

Zenbatekoa eurotan / Importe en euros

(\*) Zerga kontzeptu ezberdinengatik akta bat baino gehiago duten zergadunak daudenez, ikuskatutako zergadunen kopurua kontzeptuka dauden zergadunak batzetik ateratako kopurua baino txikiagoa da

(\*\*) Zerga zor baliokidea ondorengo guzti hauen batuketa da: ordaindu beharreko zorra, eskatutako itzulketa kuota murrizketa eta konpentsatu beharreko oinarri zergagarrien murrizketari dagokion zerga zor baliokidea. 5"ek zutabe horri dagokion kontzeptuen zerga zor baliokidea ordezkatzan du

(\*) El total de los contribuyentes inspeccionados resulta inferior a la suma del nº de contribuyentes por conceptos debido a que hay contribuyentes con actas por varios conceptos tributarios

(\*\*) La deuda tributaria equivalente es la suma de la deuda tributaria a ingresar, la reducción de la cuota a devolver solicitada y la deuda tributaria equivalente que corresponde a la reducción de las bases imponibles a compensar representado por 5".

**E.6.3. TAULA IKUSKARITZAKO AKTA GUZTIEN AZALPENA KONTZEPTUEN ARABERA. PERTSONA JURIDIKOAK**

**CUADRO E.6.3. DETALLE DE ACTAS DE INSPECCIÓN POR CONCEPTOS. PERSONAS JURÍDICAS**

ZERGA KONTZEPTUAK CONCEPTOS TRIBUTARIOS	KOP. (* Nº CONTR.	KUDEAKETAREN EMAITZAK RESULTADOS DE LA GESTION					ZERGA ZOR BALIOKIDEA (**) DEUDA TRIBUTARIA EQUIVALENTE 6=3+4+5"
		Kuotak	Interesak eta Errekarguak	Ordaindu behar- reko zerga zorra	Itzultzeko kuota- ren murrizketa	Konpen. beharreko o.e.aren murrizketa	
		Cuotas	Intereses y Recargos	Deuda tributaria a ingresar	Reducción cuota a devolver	Reducción B.I. a compensar	
		1	2	3=1+2	4	5	
Lan atxikipenak							
Retenciones de trabajo	25	507.404	64.429	571.834			571.834
Kapital higikorren atxikipenak							
Retenc. capital mobiliario	6	2.437.273	91.778	2.529.051			2.529.051
Errentaren kuota difer. Garbia							
Cuota diferencial neta de IRPF				0			0
Sozieteen kuota difer. Garbia							
Cuota difer. neta de Sociedades	75	12.973.068	2.173.487	15.146.554	214.053	820.574	15.647.808
Oinord. eta dohain. g/zerga							
Imp.s/sucesiones y donaciones				0			0
Ondarearen gaineko zerga							
Imp. sobre el patrimonio				0			0
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA							
TOTAL IMPUESTO DIRECTOS		15.917.745	2.329.694	18.247.439	214.053	820.574	18.748.693
BEZ							
IVA	76	3.807.843	333.320	4.141.163	239.505		4.380.668
Ondare eskualdaketen g/zerga							
Imp. s/transm. patrimoniales				0			0
Zerga bereziak							
Impuestos especiales	5	383.223	8.410	391.633			391.633
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA							
TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS		4.191.066	341.729	4.532.796	239.505	0	4.772.300
Jarduera ekonomikoaren g/zerga							
Imp.sobre actividades económicas				0			0
UDAL ZERGAK, GUZTIRA							
TOTAL TRIBUTOS LOCALES		0	0	0	0	0	0
ZERGA ITUNDUAK, GUZTIRA							
TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS		20.108.812	2.671.423	22.780.235	453.557	820.574	23.520.993
Zigorrak. Urraketa larriak							
Sanciones infracciones graves	192			4.279.231			4.279.231
Zigorrak. Urraketa arinak							
Sanciones infracciones simple	4			1.046			1.046
ZERGA ZORRA, GUZTIRA							
TOTAL DEUDA TRIBUTARIA	149	20.108.812	2.671.423	27.060.512	453.557	820.574	27.801.270

Zenbatekoa eurotan / Importe en euros

(\* ) Zerga kontzeptu ezberdinengatik akta bat baino gehiago duten zergadunak daudenez, ikuskatutako zergadunen kopurua kontzeptuka dauden zergadunak batzetik ateratako kopurua baino txikiagoa da

(\*\*) Zerga zor baliokidea ondorengo guzti hauen batuketan da: ordaindu beharreko zorra, eskatutako itzulketa kuotaren murrizketa eta konpentsatu beharreko oinarri zergagarrien murrizketari dagokion zerga zor baliokidea. 5"ek zutabe horri dagozkion kontzeptuen zerga zor baliokidea ordezkatzen du

(\* ) El total de los contribuyentes inspeccionados resulta inferior a la suma del nº de contribuyentes por conceptos debido a que hay contribuyentes con actas por varios conceptos tributarios

(\*\*) La deuda tributaria equivalente es la suma de la deuda tributaria a ingresar, la reducción de la cuota a devolver solicitada y la deuda tributaria equivalente que corresponde a la reducción de las bases imponibles a compensar representado por 5".

**E.6.4. TAULA ZERGA ZOR BALIOKIDEAREN BILAKAERA. 1998-2001**

**CUADRO E.6.4. EVOLUCIÓN DE LA DEUDA TRIBUTARIA EQUIVALENTE. 1998-2001**

ZERGA KONTZEPTUAK	CONCEPTOS TRIBUTARIOS	1998	1999	2000	2001	% Bariazio t./T.variación %		
						1999/98	2000/99	2001/00
Lan atxikipenak	Retenciones de trabajo	2.006	1.074	768	964	-46,5	-28,5	25,5
Kapital higikorren atxikipenak	Retenc. capital mobiliario	3.978	124	1.914	2.529	-96,9	1437,9	32,1
Errentaren kuota difer. garbia	Cuota diferencial neta de IRPF	7.074	7.010	13.423	14.552	-0,9	91,5	8,4
Sozieteen kuota difer. garbia	Cuota difer. neta de sociedades	13.526	6.981	7.822	15.648	-48,4	12,0	100,0
BEZ	IVA	3.174	71.990	8.408	5.784	2168,1	-88,3	-31,2
Gainerako zergak	Resto de tributos	605	1.021	658	604	68,7	-35,5	-8,2
ZERGA, GUZTIRA	TOTAL IMPUESTOS	30.364	88.201	32.994	40.082	190,5	-62,6	21,5
Zigorak	Sanciones	4.784	4.197	9.294	7.842	-12,3	121,5	-15,6
ZERGA ZORRA, GUZTIRA	TOTAL DEUDA TRIBUTARIA	35.148	92.398	42.288	47.924	162,9	-54,2	13,3

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

**E.6.5. TAULA IKUSKARITZAREN KUDEAKETAREN BILAKAERA**

**CUADRO E.6.5. EVOLUCIÓN DE LA GESTIÓN INSPECTORA**

KOPTZEPTUA	CONCEPTO	1997	1998	1999	2000	2001
Zergadun kopurua	Número de contribuyentes	663	507	576	479	528
Ordaindu beharreko zerga zorra (*)	Deuda tributaria a ingresar (*)	33.250	31.413	90.528	41.042	46.827
Batez besteko zorra zergadun bakoitzeko (*)	Deuda media por contribuyente (*)	50,15	61,96	157,17	85,68	88,69

(\*) Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

**E.6.6. TAULA ORDAINARAZTE BIDEAN KUDEATUTAKO ZERGABILKETAREN BILAKAERA. 1998-2001**

**CUADRO E.6.6. EVOLUCIÓN DE LA GESTIÓN RECAUDATORIA EN EJECUTIVA. 1998-2001**

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1998	1999	2000	2001	% BARIAZIOA / VARIACIÓN %		
						99/98	00/99	01/00
Urtar.-lean kobratzeko dagoen zorra	Deuda pendiente 1-enero	206.367	191.305	207.750	229.096	-7,3	8,6	10,3
Zorduntzeak	Cargos	39.568	37.302	64.243	103.485	-5,7	72,2	61,1
Kudeatu beharrekoa, guztira	Total a gestionar	245.935	228.606	271.993	332.580	-7,0	19,0	22,3
Sarrerak	Ingresos	20.128	18.408	18.917	18.668	-8,5	2,8	-1,3
Irteerak eta bestelako hartzeak	Bajas y otras datas	34.502	2.449	23.980	118.993	-92,9	879,3	396,2
Abend.-31n kobratzeko dagoen zorra	Deuda pendiente 31-dic.	191.305	207.750	229.096	194.918	8,6	10,3	-14,9

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

**E.6.7. TAULA ZERGABILKETA KUDEAKETAREN AZALPENA EXEKUTIBOAN KONTZEPTUKA**

**CUADRO E.6.7. DETALLE DE LA GESTIÓN RECAUDATORIA EN EJECUTIVA POR CONCEPTOS**

KONTZEPTUA	CONCEPTO	KOBRATU GA-BEKO ZORRA DEUDA PENDIENTE 2001-1-1	KARGUAK CARGOS 2001	SARRERAK INGRESOS 2001	IRTEERAK ETA BESTEL.HARTZEK. BAJAS Y OTRAS DATAS 2001	KOBRATU GA-BEKO ZORRA DEUDA PENDIENTE 2001-12-31
Lan atxikipenak	Retenciones de trabajo	90.455	38.988	5.162	53.631	70.650
Kapital higikorren atxikipenak	Retenc. capital mobiliario	638	208	4	254	589
Kapital higiezin atxikipenak	Retenc. capital inmobiliario	-19	115	43	-50	103
Profesionalen ordainketa zatikatuak	Pagos frac. profesionales	508	122	93	93	444
Jard.enpresarialen ordainketa zatikatuak	Pagos frac.activ.empresariales	1.911	1	0	1.909	2
Kuota diferentzial garbia	Cuota diferencial neta	9.466	5.334	2.702	745	11.352
PFEZ, guztira	Total IRPF	102.958	44.768	8.004	56.582	83.141
Sozieteen kuota diferentzial garbia	Cuota difer. neta de sociedades	11.970	6.731	236	8.826	9.639
Konturatuko ordainketak	Pagos a cuenta	51	26	5	34	38
Sozietateen gaineko zerga, guztira	Total impuesto sociedades	12.021	6.757	241	8.860	9.677
Oinordetza eta dohaintzen g/zerga	I.s/ sucesiones y donaciones	148	301	55	221	173
Ondarearen gaineko zerga	Impuesto sobre el patrimonio	1	18	3	3	13
Ez-egoilarren gaineko zerga	Impuesto no residentes		6	0	0	6
Iraungitako zuzeneko zergak	Impuestos directos extinguidos	11	0	0	10	0
<b>ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>115.139</b>	<b>51.851</b>	<b>8.303</b>	<b>65.677</b>	<b>93.010</b>
Ondare eskualdaketen g/zerga	Imp.transmisiones patrimoniales	361	162	123	134	266
Egintza juridiko dokum.	Actos jurídicos documentados	42	63	38	17	50
<b>BEZ</b>	<b>IVA</b>	<b>81.440</b>	<b>31.369</b>	<b>3.932</b>	<b>36.674</b>	<b>72.203</b>
<b>ETZ</b>	<b>ITE</b>	<b>9.774</b>	<b>5.413</b>	<b>1.803</b>	<b>8.067</b>	<b>5.316</b>
Luxuaren gaineko zerga	Impuesto sobre el lujo	0	0	0	0	0
Garraio bideen g/zerga berezia	Imp.especial medios transporte	16	11	7	6	14
Zerga bereziak	Impuestos especiales	693	397	83	77	930
<b>ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS</b>	<b>92.325</b>	<b>37.414</b>	<b>5.986</b>	<b>44.975</b>	<b>78.778</b>
Zorizko konbinazioak eta jokua	Combinac.aleatorias y juego	12	2	1	0	13
Jolas makinak	Máquinas recreativas	38	9	1	5	41
Apostuak	Apuestas	0	4	3	0	1
Jokoaren tasa (kasinoak)	Tasa de juego (casinos)	0	0	0	0	0
Joko tasak, guztira	Total tasas de juego	50	16	5	5	56
Berandutza interesak	Intereses de demora	5.972	2.305	566	2.515	5.196
Bestelako sarrerak	Ingresos diversos	19	3	2	0	21
Zigorak	Sanciones	7.683	6.920	1.131	3.459	10.012
Zergabilketa kostuak	Costas de recaudación	114	116	44	94	93
Errekarguak eta interesak	Recargos e intereses	703	601	212	224	868
Aldundiaren tasak	Tasas Diputación	1.312	1.046	457	313	1.588
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>TASAS Y OTROS INGRESOS</b>	<b>15.854</b>	<b>11.007</b>	<b>2.417</b>	<b>6.610</b>	<b>17.833</b>
<b>FORU TRIBUTUAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL TRIBUTOS FORALES</b>	<b>223.318</b>	<b>100.272</b>	<b>16.706</b>	<b>117.262</b>	<b>189.622</b>
Landalur eta nekazal kontribuzioa	Contribuc. rústica y pecuaria	32	22	33	3	18
Hirilur kontribuzioa	Contribución urbana	1.489	1.137	1.041	349	1.235
Industriarako baimen fiskala	Licencia fiscal industrial	22	1	0	2	20
Profesionalen baimen fiskala	Licencia fiscal profesional	1	0	0	0	0
Jarduera ekonomikoaren g/zerga	Imp.s/actividades económicas	4.236	2.054	889	1.377	4.024
<b>UDAL ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>TOTAL TRIBUTOS LOCALES</b>	<b>5.779</b>	<b>3.213</b>	<b>1.963</b>	<b>1.731</b>	<b>5.298</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>TOTAL</b>	<b>229.097</b>	<b>103.485</b>	<b>18.668</b>	<b>118.993</b>	<b>194.919</b>

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

**E.6.8. TAULA GERORAPEN ESPEDIENTEEN IZAPIDAKETAREN BILAKAERA**  
**CUADRO E.6.8. EVOLUCIÓN DE LA TRAMITACIÓN DE LOS EXPEDIENTES DE APLAZAMIENTO**

KONTZEPTUA	CONCEPTO	1998	1999	2000	2001	% BARIAZIOA / VARIACIÓN %		
						99/98	00/99	01/00
Urtar.-lean ebatzi gabeak	Pendientes resolver a 1-En.	219	166	174	200	-24,2	4,8	14,9
Eskaerak	Solicitudes	1.798	1.696	1.607	2.033	-5,7	-5,2	26,5
Onartuak	Concedidos	1.326	1.212	944	1.484	-8,6	-22,1	57,2
Ezetsiak eta atzera egindakoak	Denegados y desistidos	525	476	637	620	-9,3	33,8	-2,7
Abend.-31n ebatzi gabeak	Pendientes resolver a 31-dic.	166	174	200	129	4,8	14,9	-35,5

**E.6.9.TAULA ORDAINTZEKO DAUDEN ZENBATEKOAK, ZERGA KONTZEPTUEN ARABERA**  
**CUADRO E.6.9. IMPORTES PENDIENTES POR CONCEPTOS TRIBUTARIOS**

KONTZEPTUA	CONCEPTO	ORDAINTZEKO DA- GOEN ZENBATEKOA IMPORTE PENDIENTE 31-12-01
Lanaren atxikipenak	Retenciones trabajo	33.939
Kapitalaren atxikipenak (higikor.,higiezin.)	Retenciones capital (mobiliario e inmob.)	142
Ordainketa zatikatuak	Pagos fraccionados	17
PFEZ kuota diferenzial garbia	Cuota diferencial neta IRPF	1.888
Konturatuko ordainketak	Pagos a cuenta	
Sozietate zergaren kuota difentzial garbia	Cuota dif. neta impuesto sobre sociedades	2.274
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	Impuesto sobre sucesiones y donaciones	633
Ondarearen zerga	Impuesto sobre el patrimonio	1
Desagertutako beste zuzeneko zergak	Otros impuestos directos extinguidos	
<b>ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>38.894</b>
Ondare eskualda eta eg.jur.dokm.en zerga	Imp.sobre trans. Patrimon. y A.J.D.	68
Balio erantsiaren g/zerga	Impuesto sobre el valor añadido	28.302
Alkohol eta edari deribatuen gaineko zerga	Impuesto sobre alcohol y bebidas deriv	10
Hidrokarburuen gaineko zerga	Impuesto sobre hidrocarburos	75
Enpresa trafikoaren gaineko zerga	Impuesto sobre tráfico de empresas	3.096
Desagertutako beste zeharkako zergak	Otros impuestos indirectos extinguidos	
<b>ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS</b>	<b>31.551</b>
Joko tasa: makinak, apostuak	Tasa de juego: máquinas, apuestas	248
Berandutza interesak	Intereses de demora	1.330
Zigorak	Sanciones	1.223
Beste sarrera batzuk	Otros ingresos	304
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>TASAS Y OTROS INGRESOS</b>	<b>3.105</b>
<b>DIPUTAZIOAK ITUNDUTAKO ZERGAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL TRIBUTOS CONCERT.DE DIPUTACION</b>	<b>73.550</b>
Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga	Imp. sobre actividades económicas	53
Industriarako baimen fiskala	Licencia Fiscal industrial	4
Hirilurren kontribuzioa	Contribución urbana	31
<b>UDAL ZERGAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL TRIBUTOS LOCALES</b>	<b>88</b>
Garraio eta errepideetako isunak	Multas de transporte y carreteras	10
Bestelako sarrerak	Otros ingresos	36
<b>EUSKO JAURLARITZA,GUZTIRA</b>	<b>TOTAL GOBIERNO VASCO</b>	<b>46</b>
<b>ZERGAK, GUZTIRA</b>	<b>TOTAL TRIBUTOS</b>	<b>73.684</b>

**Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros**

**E.6.10. TAULA AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAREN JARDUERAREN BILAKAERA**  
**CUADRO E.6.10. EVOLUCIÓN DE LA ACTUACIÓN DEL TRIBUNAL ECONÓMICO-ADMINISTRATIVO**

URTEAK AÑOS	AURKEZTURIKO ERREKLAMAZIOAK RECLAMACIONES INTERPUESTAS		ERABAKITAKO ERREKLAMAZIOAK RECLAMACIONES RESUELTAS		EBAZTEKE DAUDEN ERREKLAMAZIOAK RECLAMACIONES PENDIENTES	
	Kopurua Número	% Bariazioa % Variación	Kopurua Número	% Bariazioa % Variación	Kopurua Número	% Bariazioa % Variación
1993	1.570		541		3.005	
1994	1.680	7,0	1.272	135,1	3.413	13,6
1995	1.809	7,7	1.701	33,7	3.521	3,2
1996	1.932	6,8	2.085	22,6	3.368	-4,3
1997	1.974	2,2	2.240	7,4	3.102	-7,9
1998	1.091	-44,7	1.635	-27,0	2.558	-17,5
1999	909	-16,7	1.593	-2,6	1.874	-26,7
2000	707	-22,2	1.311	-17,7	1.270	-32,2
2001	1.504	112,7	1.119	-14,6	1.655	30,3

**E.6.11. TAULA AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAREN ESTADISTIKAK. 2001EKO EKITALDIA**  
**CUADRO E.6.11. ESTADÍSTICA DEL TRIBUNAL ECONÓMICO-ADMINISTRATIVO. EJERCICIO 2001**

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	2001EAN AURKEZTURIKO ERREKLAMAZIOAK RECLAMACIONES INTERPUESTAS EN 2001	EBATZIAK / RESUELTAS							EBATZI GABEKOAK / PENDIENTES		
		Emaitzaren arabera Según Resultado				Aurk. urtearen arabera Según año presentación		GUZTIRA TOTAL	Aurk. urtearen arabera Según año presentación		
		Onetsiak Estimadas	Zatian Onetsiak Est.Parcial	Ezetsiak Desestimadas	Bestelakoak Otros	2000 aurrek. 2000 ó ant.	2001		2000 aurrek. 2000 ó ant.	2001	
PFEZ eta Ondarearen gaineko zerga	IRPF e imp.patrimonio	381	56	154	371	70	618	33	651	95	348
Sozietateen gaineko zerga	Impuesto sociedades	53	3	6	34	10	45	8	53	31	45
Oinordetzen gaineko zerga	Impuesto sobre sucesiones	18	2	4	15	2	22	1	23		17
Ond. eskual.en eta E.J.D.en g/zerga	I.trans.patrim. y actos J.D.	10	2	1	68	4	75		75	1	10
BEZ	IVA	79	5	8	53	11	69	8	77	26	71
Zerga bereziak	Impuestos especiales	2	6	4	14	1	25		25	3	2
Beste zerga itundu batzuk	Otros concertados	4							0		4
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	Imp. act. económicas	13	5	4	26	2	37		37	22	13
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	Imp. bienes inmuebles	712	8	3	17	3	30	1	31	37	711
Hiril.en balio gehikuntzaren g/zerga	I.incr.valor terrenos urbanos	8	11	1	5	3	18	2	20	8	6
Eraik., inst. eta obren g/zerga	I. construc., inst. y obras	5	2	1	2	1	5	1	6	4	4
Trakzio mekanik. ibil. g/zerga	I. vehíc. trac. mecánica	3	2		6	2	9	1	10	2	2
Udal tasak	Tasas municipales	5	2	1	4		7		7	7	5
Beste udal zergak	Otros trib. municipales	2							0		2
Sarrera ez-tributarioak	Ingresos no tributarios	22	2		1	15	3	15	18	7	7
Udal sarrerak: bide exekutiboan	Ejecutiva ingr.municipales	1		3			3		3	5	1
Foru sarrerak: bide exekutiboan	Ejecutiva ingresos forales	19	1		12	4	15	2	17	11	17
Ejren sarrerak: bide exekutiboan	Ejecutiva ingr. Gob. Vasco	22	1	1	14	4	19	1	20	8	21
Joko tasak	Tasas de juego	141			42	3	1	44	45		97
Beste zerga batzuk	Varios tributos	4		1			1		1	1	4
Zehaztu gabeak	Sin determinar								0		
<b>GUZTIRA</b>	<b>TOTAL</b>	<b>1.504</b>	<b>108</b>	<b>192</b>	<b>684</b>	<b>135</b>	<b>1.002</b>	<b>117</b>	<b>1.119</b>	<b>268</b>	<b>1.387</b>

**E.6.12. TAULA LEGE AHOLKULARITZAREN ESTADISTIKAK**

**CUADRO E.6.12. ESTADÍSTICAS DE LA ASESORÍA JURÍDICA**

JARDUERAK	ACCIONES	ZENBAKIA NÚMERO
PROZEDUREN ETENDURA JAKINARAZTEA	NOTIFICACIONES SUSPENSION	39
AUZITEGIAREN BILERETAN PARTE HARTZEA	PARTICIPACION EN SESIONES DEL T.E.A.F.	11
Aztertutako ebazpenak	Resoluciones analizadas	1.331
KONTSULTA BATZORDEAK	COMISIONES DE CONSULTAS	3
Aztertutako kontsultak	Consultas analizadas	31
KOOPERATIBA BATZORDEAK	COMISIONES DE COOPERATIVAS	2
Aztertutako arazoak	Cuestiones analizadas	12
AUZIT.ETAN DEFEND.KO ADM.AUZI ERREKURT.	REC. CONTEC.-ADMIN. DEFENSA TRIBUNALES	213
AUZIT.ETAN DEFEND.KO PROZEDURA PENALAK	PROCED.PENALES. DEFENSA TRIBUNALES	5
KIEBRAK. PROZEDURA KONKURTSALAK	QUIEBRAS. PROCEDIMIENTO CONCURSAL	6
JARDUKETA ESTRAJUDIZIALAK	ACTUACIONES EXTRAJUDICIALES	
Administrazio bidetik jotzeko erabaki proposamena	Propuestas acuerdo actuación vía administrativa	2
Kasazio errekurtoa jartzeko erabaki proposamenak	Propuestas acuerdo interposición rec.casación	3
Epaiak betetzeko Foru Agindurako proposamenak	Propuesta Orden Foral Ejecución	456
Hirugarrengotzei buruzko Foru Agindu proposamenak	Propuestas Orden Foral Tercerías	3
Kooperatiba arteko lankidetzara erakundeen esped.	Expdtes.Instituc.de cooperación intercooperativa	2
Kexa eta iradokizunei buruzko espedienteak	Expedientes relativos a quejas y sugerencias	2
Aitorpenen kudeaketa	Gestión de declaraciones	800
Txostenak :	Informes :	
-Zergei buruzkoak	-Tributarios	12
-Hirugarrengotzak	-Tercerías	3
-Zergabilketa	-Recaudación	2
-Udal zergak	-Tributos locales	6
-Exekuzio txostenak	-Informes ejecución	456
-Abalak	-Avales	12
-Bestelakoak	-Otros	7
Zenbait idatzi	Escritos varios	496
Telefono bidezko kontsultak	Consultas telefónicas	1.300
Abalak askiestea	Bastanteo de avales	476
Errenta eta Hir.kobratzeko baimenak	Autorizaciones cobro de Renta y Urbana	13
GUZTIRA	TOTAL	5.704
ORDEZKARIEN ERREGISTROA	REGISTRO REPRESENTANTES	
Inskribaturiko ordezkariak	Representantes inscritos	422
Apud actak	Apud actas	91
Ahalordeak askiestea	Bastanteo de poderes	75
Konpultsaturiko agiriak	Documentos compulsados	331
Bajak	Bajas	36
Zenbait idatzi	Escritos varios	35
GUZTIRA	TOTAL	990

## 7. ZERGA ITUNDUEN BILKETA. 2001EKO EKITALDIA.

### 7.0. SARRERA

2001. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiaren sarrera ez-finantzarioak (Ietik VIIra arteko kapituluak) 2.804 milioi eurokoak izan dira (466.590 milioi pezeta); horietatik %95,9, 2.690 milioi euro alegia, Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikita dauden zerga itunduetatik datoz.

**Zerga itunduen bilketak** dezelerazio joerarekin jarraitu du urtean zehar, eta bi dira horren arrazoiak:

- Zergabilketa osoaren hazkunde txikiagoa, %4,0 hazi baita (aurreko urtean %9,1 gehitu zenean).
- Itzulketen igoera handiagoa: %5,8.

Horren ondorioz, zergabilketa likidoa, aurreko bien arteko diferentzia eginez kalkulatzen dena, 94 milioi euro baino ez da gehitu (15.610 milioi pezeta), eta %3,6ko urtearteko tasa eman du, aurreko ekitaldian baino 3,7 puntu portzentual gutxiago.

Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itunduen **aurrekontua** %100,0 **gauzatu da** 2001ean, betetze maila desberdinak ageri badira ere:

- Mailarik handiena zuzeneko zergei dagokie (aurrekontuaren %102,7). Horien barruan portzentajerik handienak hauexek dira:
  - . %123,6 ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan.
  - . %116,6 kapital higikorren atxikipenetan, hala Errenta Zergan nola Sozietateen gaineko Zergan.
- Tasek eta bestelako sarrerek %102,4 lortu dute, eta horien artean zigorrak nabarmentzen dira, euren betetze maila %216,7koa izan delako.

Azkenik, Aldundiak kudeatutako zeharkako zergen bilketa %98,2 bete da.

Eranskinaren E.7.1. taulan 1998-2001 epealdiko bilketa likidoa ikus daiteke, kontzeptu bakoitzak urteko kopuru osoan duen partaidetza eta horien urtearteko bariazioa.

## 7. RECAUDACIÓN DE TRIBUTOS CONCERTADOS. EJERCICIO 2001.

### 7.0. INTRODUCCIÓN

En el año 2001 los ingresos no financieros de la Diputación Foral de Gipuzkoa, capítulos del I al VII, han ascendido a 2.804 millones de euros (466.590 millones de pesetas); de ellos el 95,9%, 2.690 millones de euros, proviene de los tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

La **recaudación de los tributos concertados** ha mantenido a lo largo del año su tendencia de desaceleración, debido a:

- Un menor aumento de la recaudación íntegra: concretamente ha aumentado un 4,0% (el año anterior fue un 9,1%).
- Un incremento superior de las devoluciones, que crecen un 5,8%.

Por ello, la recaudación líquida calculada como diferencia de las dos anteriores, aumenta sólo en 94 millones de euros (15.610 millones de ptas.), con una tasa interanual del 3,6%, crecimiento inferior en 3,7 puntos porcentuales al del ejercicio anterior.

El **grado de ejecución presupuestaria** del total de los tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas en 2001 ha sido del 100,0%, aunque con diferentes grados de cumplimiento:

- El mayor nivel corresponde a los impuestos directos, que registran un 102,7% del presupuesto. Dentro de ellos, los mayores porcentajes se han dado entre:
  - . El impuesto sobre la renta de los no residentes, con un 123,6%.
  - . Las retenciones del capital mobiliario, tanto del IRPF como de sociedades, con el 116,6%.
- Las tasas y otros ingresos obtienen el 102,4%; entre ellos destacan las sanciones, con un grado de ejecución del 216,7%.

La recaudación de los impuestos indirectos en su gestión propia muestra un grado de ejecución del 98,2%.

El cuadro E.7.1. del anexo muestra la recaudación líquida en el periodo 1998-2001, la participación de cada concepto sobre el total anual y la variación interanual de los mismos.

Zergabilketaren **banaketa portzentuala** berdintsu mantendu da epealdian, 7.1 grafikoa ikus daitekeen moduan:

- %11,2 doikuntzei dagokie.
- Aldundiak kudeatutako zergek %88,8 hartzen dute, eta horien barruan:
  - . Zuzeneko zergak bilketa osoaren %45,9 dira.
  - . Zeharkako zergak %41,7.
  - . Eta tasak eta bestelako sarrerak %1,2.

Dena den, Aldundiak kudeatutako zergabilketaren banaketa horretan mugimendu bat antzematen da epealdiaren barruan, zuzeneko zergak zeharkako zergen mesedean jaitsi direlako, zerga bereziek bilketan duten pisua gehitzearen ondorioz.

Zerga itunduen **bilketa likido osoa** %3,6 gehitua da:

- Kudeaketa propioetik eratorritako urteko bilketak %5,7 egin du gora, bilketa likido osoaren gehikuntza baino bi puntu portzentual gehiago. Taldeka aztertuta hauxe dugu:
  - . Tasek eta bestelako sarrerek hazkunde txikiena dute (%0,3).
  - . Zuzeneko zergak %5,6 gehitu dira.
  - . Zeharkako zergek ageri dute hazkunderik handiena, urtearteko bariazioa %5,9koa izan baita.
- Estatuak BEZagatik eta zerga bereziengatik ordaintzen dituen doikuntzek osatzen dute zerga itunduen bilketaren beste elementua, batera hartuta %10,4 jaitsi dena. Horien artean, dena den, diferentzia handiak nabari dira:
  - . BEZaren doikuntzak %3,8 baino ez dira jaisten.
  - . Aldiz, zerga berezienak %532,5 murrizten dira. Bi arrazoi nagusi egon dira horretarako:
    1. Tabako laboreen gaineko zergan bildutakoa nabarmen jaitea, doikuntzen bidez izandako sarrerak gutxitu eta kudeaketa propioaren bidez lortutakoak gehitu direlako.
    2. Alkoholetik eta edari deribatuetatik datozen doikuntzak gutxitzea.

La **distribución porcentual** de la recaudación, según recoge el gráfico 7.1., se mantiene similar a lo largo del periodo:



- El 11,2% corresponde a los ajustes.
- El 88,8% son los impuestos de gestión propia. Dentro de la misma:
  - . Los impuestos directos representan el 45,9% de la recaudación total.
  - . Los indirectos, el 41,7%.
  - . Las tasas y otros ingresos, el 1,2%.

No obstante, en la distribución de la recaudación por gestión propia se aprecia un movimiento en el periodo ya que se ha producido un descenso de los impuestos directos a favor de los indirectos, debido al aumento del peso recaudatorio de los tributos especiales.

La **recaudación líquida total** de los tributos concertados ha aumentado un 3,6%:

Dentro del análisis de la posición financiera neta resulta interesante estudiar cada componente en base a su variación anual, es decir, la diferencia entre su situación al inicio del ejercicio y al final del mismo. Así se analiza qué saldos y cómo se han generado en cada ejercicio. También ha de tenerse en cuenta que la variación de la posición financiera neta de cada año coincide con el superávit/déficit de caja no financiero del ejercicio.

Con este análisis se aprecia que, aunque la posición financiera neta de cada ejercicio ha ido mejorando hasta pasar a términos positivos, la tendencia de este crecimiento se ha ido moderando en el periodo, siendo ésta cada vez menor.


### GRÁFICO 8.10. GRAFIKOA

**GFaren Egoera Finantzario Garbiaren eta bere osagaien bariazioaren bilakaera**  
 Evolución de la variación de la Posición Financiera Neta de la DFG y de sus componentes  
 1998-2001



### EGOERA FINANTZARIO GARBIAREN BARIAZIOA

VARIACIÓN DE LA POSICIÓN FINANCIERA NETA



Urtez urteko bariazioek portaera desberdina dute aztertu den epealdian:

- Pasibo finantzarioek, “Jesapenak eta jasotako maileguak” nagusiki, saldo negatiboa erakusten dute urtero, gorabeherak ageri badira ere:

- . 1998 eta 2000n asko jaisten dira.
- . 1999 eta 2001ean jaitsiera txikiagoa da.

Las variaciones anuales producidas en el periodo presentan distinto comportamiento:

- Los pasivos financieros, en su mayoría “Empréstitos y Préstamos recibidos”, muestran a lo largo de todos los años un continuo saldo negativo, aunque con altibajos:

- . Fuertes descensos en 1998 y 2000.
- . Bajadas menores en 1999 y 2001.

- Aktibo finantzarioek beheranzko joera dute lehen hiru ekitaldietan, 2000n 3 milioi euro jaisteraino. Joera hori azken ekitaldian zuzendu da, 26 milioi euro igo ondoren. “Beste aktibo finantzario batzuk” 91 milioi euro gehitzea izan da hazkunde horren arrazoia. Saldo erabilgarriak ere beherantz egiten du epealdian, eta batik bat azken bi ekitaldietan, negatiboa bihurtzen baita orduan.
- Pasiboa gero eta gutxiago jaisteak eta aktiboa pixkanaka-pixkanaka motelduz joateak (moteltze hori azken ekitaldian zuzendu bada ere) moderatu egin dute egoera finantzario garbia eta beheranzko joeran jarri dute: 1998an 128 milioi euroko hazkunde izatetik epealdiko azken urtean 74 milioi euroko hazkundera izatera pasa da.

### 8.1.3. SARRERA ETA GASTU PROPIO EZ-FINANZARIOEN EGITURA

Aurrekontu propio ez-finanzarioaren egitura aztertzean bi eragiketa mota bereizten ditugu bai sarreretan eta bai gastuetan:

- Eragiketa arruntak.
- Kapital eragiketak.

Sarrera arrunt propioen barruan, 4. eta 5. kapituluak biltzeaz gain (jasotako transferentzia arruntak eta ondare sarrerak alegia), lehen hiru kapituluak taldekatu egin dira eta ondoko hauen artean bereizi:

- Zerga itunduak, erakundearteko konpromisoen zenbatekoa kendua dutenak egotzitako edo kargarik gabeko zerga itunduen bilketa lortzeko (zerga itundu propioak).
  - Gainerako zerga sarrerak.
- Gastu arrunt propioen artean hauek bereizten dira:
- Finantza gastuak (3. kapitulua).
  - Kudeaketa gastuak, honela osatuak:
    - . Langileria gastuak (1. kapitulua).
    - . Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak (2. kapitulua).
    - . Transferentzia arruntak, erakundearteko konpromisoen zenbatekoa kendua dutenak. (Transferentzia arrunt propioak).

- Los activos financieros manifiestan en los tres primeros ejercicios una tendencia descendente que conduce a una bajada de 3 millones de euros en 2000. Esta tendencia se corrige en el último ejercicio, con un aumento de 26 millones. Este incremento obedece al aumento en 91 millones de “otros activos financieros”. A lo largo del periodo, el disponible muestra una tendencia descendente que se acentúa en los dos últimos ejercicios, en los que se torna negativo.
- El efecto conjunto de la disminución cada vez menor del pasivo y de la paulatina desaceleración del activo (corregida en el último ejercicio) ha originado una posición financiera neta más moderada y con tendencia descendente, que ha pasado de crecer 128 millones en 1998 a hacerlo en 74 millones de euros durante el último año del periodo.

### 8.1.3. ESTRUCTURA DE LOS INGRESOS Y GASTOS PROPIOS NO FINANCIEROS

Al analizar la estructura del presupuesto propio no financiero distinguimos, tanto para ingresos como para gastos, entre:

- Las operaciones corrientes.
- Las operaciones de capital.

Dentro de los ingresos corrientes propios, además de los capítulos 4 (transferencias corrientes recibidas) y 5 (Ingresos patrimoniales), los tres primeros capítulos se han agrupado diferenciándose entre:

- Los tributos concertados a los que hemos restado el importe de los compromisos institucionales obteniendo así la recaudación por tributos concertados imputados o libres de cargas (Tributos concertados propios).
- El resto de ingresos tributarios.

Los gastos corrientes propios se dividen entre:

- Los gastos financieros (capítulo 3).
- Los gastos de gestión, formados por:
  - . Gastos de personal (capítulo 1).
  - . Compra de bienes corrientes y servicios (capítulo 2).
  - . Transferencias corrientes, a los que se ha deducido la cuantía de compromisos institucionales. (Transferencias corrientes propias).



Epealdiko **sarrera arrunt propioak** honela banatu dira:

- Portzentajerik handiena zerga itunduetan metatuta, konpromisoen zenbatekoa behin kenduta: epealdiko lau urteak harturik, 1998tik 2001era %85,8 eta %90,8 bitartean ibili dira, eta nabarmentzekoa da 2000. urtean portzentaje hori %92,0ra iritsi dela.
- Aurrekotik oso urrun transferentzia arruntak daude. Lehen bi ekitaldietan %10,9 eta %9,0 dira hurrenez hurren, baina ondorengo bi urteetan erdia baino ez dute hartzen: %4,5 2000n eta %4,9 2001ean.
- Itundu gabeko beste zergetan, epealdiko bariazioa ez da hain handia: sarreren %2,7.
- Ondare sarrerak garrantzi gutxienekoak dira: %1 inguru epealdian.

Los **ingresos corrientes propios** del periodo se distribuyen de la siguiente forma:

- Los tributos concertados minorados en la cuantía de los compromisos es el concepto con mayor concentración: en los cuatro años del periodo representan entre el 85,8% de 1998 y el 90,8% de 2001, siendo resaltable el repunte producido en 2000, año en que alcanzan el 92,0%.
- Muy alejadas del anterior se encuentran las transferencias corrientes, que en los dos primeros ejercicios representan el 10,9% y el 9,0% respectivamente, y en los dos años siguientes pasan a suponer la mitad, concretamente un 4,5% en 2000 y un 4,9% en 2001.
- Los otros tributos no concertados no varían tanto en el periodo, con un 2,7% de los ingresos.
- Los ingresos patrimoniales son el concepto con menor representatividad: alrededor del 1% en el periodo.

**GRÁFICO 8.11. GRAFIKOA**  
**Sarrera eta gastu arrunt propioen egitura**  
 Estructura de los ingresos y gastos corrientes propios  
 1998-2001



1998tik 2001era bitartean sarrera arrunt propioak %12,9 gehitu dira. Igoerarik handiena (%6,3koa) 1999an ageri da, zerga itunduen %9,2ko gehikuntzari esker. Aldiz, hurrengo urtean, transferentzia arruntak

Entre 1998 y 2001 los ingresos corrientes propios han crecido un 12,9%. El ejercicio que presenta un mayor incremento es 1999, con una tasa del 6,3%, gracias al elevado crecimiento de los tributos concertados (9,2%). Al

%48,3 jaisten diren urte berean, %2,7ko hazkundera dute soilik. Epealdiko azken urtean %3,4koa da igoera.

**Gastu arrunt propioetan**, ordea, kontzeptu bakoitzaren partaidetzak banaketa handiagoa du:


- Gastu finantzarioek gero eta garrantzi txikiagoa dute epealdian, eta 1998an gastuen %9,7 izatetik %6,8 izatera pasa dira 2001ean.
- Kudeaketa propioko gastuen artean, transferentzia arruntei dagozkienak dira garrantzitsuenak, beti ere konpromisoak behin kendu ondoren. Epealdiko gastu arrunt propioen erdia baino zerbait gutxiago hartzen dute. Hona hemen portzentajeak urtez urte: %48,7, %48,4, %49,3 eta %48,8.
- Langileria gastuek epealdiko gastuen %26,8 biltzen dute; 1999an dute igoera bakarra, eta %28,0raino iristen dira.
- Azken taldean, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak biltzen dituenen, epealdiko batez beste koa %16,2koa izan da. Bariazioa 1998ko %14,9tik azken ekitaldiko %17,7ra bitartean dabil.

año siguiente crecen sólo un 2,7%, coincidiendo con un descenso del 48,3% de las transferencias corrientes. En el último ejercicio del periodo el aumento ha sido del 3,4%.

En los **gastos corrientes propios**, en cambio, la participación de cada concepto se encuentra más repartida:

- Los gastos financieros disminuyen progresivamente su importancia en el periodo y de representar el 9,7% de los gastos en 1998, pasan a suponer el 6,8% en 2001.
- Entre los gastos de gestión propia, los más representativos son los correspondientes a las transferencias corrientes una vez restados los compromisos, que suponen algo menos de la mitad de los gastos corrientes propios en el periodo. Concretamente, representan el 48,7%, 48,4%, 49,3% y 48,8% respectivamente para cada año.
- Los gastos de personal concentran el 26,8% de los gastos del periodo; en 1999 únicamente presentan un repunte hasta situarse en el 28,0%.
- El último grupo, las compras de bienes corrientes y de servicios alcanzan una media del 16,2% en el periodo, con una variación que oscila entre el 14,9% de 1998 y el 17,7% del último ejercicio.

**GRÁFICO 8.12. GRAFIKOA**  
**Sarrera eta gastu arrunt propioen eta aurrezkiaren bilakaera**  
 Evolución de los ingresos y gastos corrientes propios y del ahorro  
 1998-2001



Aztertutako lau urteetan gastuek %15,8ko igoera metatua dute, urte batetik bestera gorabeherak ageri badira ere. Horrela, 1999. urtean jaitsi ondoren, hurrengo urtean gora egiten dute argi eta garbi, eta 2001ean hazkundera moderatu egiten da. Zehazki esanda, 1999an gastua %0,7 murrizten da finantza gastuak %21,6 jaisten direlako eta gutxitutako transferentzia arruntek %1,3ko murrizpena dutelako. Aldiz, 2000. urtean gastuak %10,6 gehitzen dira ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak nabarmen igotzeagatik (%13,9) eta transferentziek ere gora egiteagatik (%12,6). Hurrengo urtean, non finantza gastuak gutxitzen diren (-%4,2) eta transferentziek igoera txikiagoa duten (%4,4), gastuak hazkundera moderatuagoa du, %5,5koa hain zuzen.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egituraren beste zatia, kapital eragiketarako alegia, sarrera eta gastuen 6. eta 7. kapituluak osatzen dute. Análisisa egiterakoan, honela taldekatu ditugu:

- Inbertsio garbia, hau da, egindako inbertsioen eta inbertsioak inorenganatzearen arteko diferentzia.
- Ordaindutako kapital transferentziak.
- Jasotako kapital transferentziak.

**Inbertsio garbia** %85,4 gehitu da epealdian, eta 1998an 96 milioi eurokoa izatetik 178 milioi eurokoa izatera pasa da 2001ean. Igoerarik handienak 1999an (%27,8) eta 2001ean (%38,8) gertatu dira. Azken urte horretako igoeraren arrazoia hainbat errepidetan egiten ari diren obra handiak dira (Etxegarateko mendatea eta Eibar-Gasteiz saihesbidea). Inbertsio horiek sarrera ez-finantzario guztien %21,8 eta %34,0 dira hurrenez hurren.

**Ordaindutako kapital transferentziak**, beren aldetik, %6,9 jaitsi dira epealdi honetan. Igoera bakarra (%4,6koa) 2000. urtean gertatu da, eta gainerako ekitaldietan beherakadak daude. Nolanahi ere, bariazioak ez dira oso handiak: 32 milioi eurotik 1998an 30 milioi eurora igaro da 2001ean.

Aldundiko inbertsioaren kanpoko finantzazioa, hau da, **jasotako kapital transferentziak**, bikoiztu egin da epealdian, inbertsiorako joerak bultzatuta. %100,3 gehitu dira guztira, 25 milioi eurotik 1998an 50 milioi eurora pasa baita 2001ean. 1999an izandako beherakadaren ondoren, hurrengo bi ekitaldietan igoera handiak ditu, %79,1 2000n eta %64,7 2001ean, eta azken urte horretan sarrera arrunt propio guztien %10,7 biltzen du.

Los gastos en los cuatro ejercicios del periodo recogido muestran un aumento acumulado del 15,8%, aunque con altibajos de un año para otro, ya que tras el descenso de 1999, al año siguiente aumentan significativamente, para mostrar una moderación en el crecimiento de 2001. Concretamente en 1999, gracias al descenso del 21,6% de los gastos financieros y del 1,3% en las transferencias corrientes minoradas, el gasto desciende un 0,7%. En cambio, en 2000, año en el que aumentan de forma significativa las compras de bienes corrientes y servicios (13,9%) y las transferencias (12,6%), aumentan los gastos un 10,6%. Este incremento se ve moderado al año siguiente al crecer un 5,5%, coincidiendo con el descenso de los gastos financieros (-4,2%) y el menor incremento de las transferencias (4,4%).

La otra parte de la estructura del presupuesto propio no financiero, las operaciones de capital, está compuesta por los capítulos 6 y 7 de ingresos y gastos. Para realizar el análisis, los agrupamos de la siguiente manera:

- La inversión neta, definida como diferencia entre las inversiones realizadas y la enajenación de inversiones.
- Las transferencias de capital pagadas.
- Las transferencias de capital recibidas.

La **inversión neta** ha aumentado a lo largo del periodo un 85,4%, y de 96 millones de euros en 1998 se ha situado en 178 millones en 2001. En los años recogidos los mayores aumentos se producen en 1999 (27,8%) y 2001 (38,8%). En este último año la causa se encuentra en las importantes obras de carreteras que se están desarrollando (puerto de Etxegarate y la variante Eibar-Gasteiz). Estas inversiones representan entre el 21,8% y el 34,0% del total de ingresos no financieros.

Por su parte, las **transferencias de capital pagadas** han descendido un 6,9% en el periodo, con un único aumento del 4,6% en 2000, y descensos en el resto de los ejercicios. No obstante, las variaciones producidas no han sido muy grandes, ya que han pasado de 32 millones de euros en 1998 a 30 millones en 2001.

La financiación externa de la inversión foral, las **transferencias de capital recibidas**, acorde con la tendencia inversionista, se han duplicado en el periodo al pasar de 25 millones de euros en 1998 a 50 millones en 2001, es decir, han aumentado un 100,3%. Tras el descenso producido en 1999, recoge importantes incrementos en los dos años siguientes, concretamente del 79,1% en 2000 y del 64,7% en el último año, ejercicio en el que representa el 10,7% del total de los ingresos corrientes propios.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren emaitza kalkulatzeko, hau da, ekitaldiko superabit edo defizita eza gutzeko, aurrekontu arrunta eta kapital eragiketak elkartu behar ditugu eta sarrerak eta gastuak modu honetara bereizi:

- Aurrezkiari (aurrekontu arruntaren saldoari) jasotako kapital transferentziak gehituz.
- Inbertsio garbiak eta ordaindutako kapital transferentziak batuz.


Bi magnitude horien arteko aldeak ekitaldiko superabit edo defizita ematen digu, 8.13. grafikoan ikus daitekeena.

Para calcular el resultado del presupuesto propio no financiero, es decir, el superávit o déficit del ejercicio, hemos de agrupar ambas partes: el presupuesto corriente y las operaciones de capital, diferenciando los ingresos y los gastos de la siguiente manera:

- Agregamos al ahorro (saldo del presupuesto corriente) las transferencias de capital recibidas.
- Sumamos las inversiones netas y las transferencias de capital pagadas.

La diferencia entre ambas magnitudes nos da como resultado el superávit o déficit del ejercicio, recogido en el gráfico 8.13.


**GRÁFICO 8.13. GRAFIKOA**  
**Aurrekontu propio ez- finantzarioaren emaitzaren bilakaera**  
 Evolución del resultado del presupuesto propio no financiero  
 1998-2001



Superabit honek, kapitulu honetako lehen apartatuan aztertu denak, murrizpen bat erakusten du apurkapurka epealdian, 2001ean areagotu egiten dena. Ekitaldi horretan aurrezkiak %1,2ko igoera baino ez du; jasotako kapital transferentziak, ordea, asko igo dira (%64,7). Dena den, gehikuntza hori ez da nahikoa izan inbertsioen eta ordaindutako kapital transferentzien igoerari aurre egiteko, eta horren ondorioz, superabita %30,8 gutxitu da.

Este superávit, ya analizado en el primer apartado del capítulo, muestra claramente que durante el periodo éste se va reduciendo, con un descenso más acentuado en el año 2001. En este ejercicio, el ahorro apenas crece un 1,2%, en cambio, las transferencias de capital recibidas presentan un elevado incremento (64,7%). De cualquier forma, este aumento no ha sido suficiente para hacer frente al crecimiento de las inversiones y de las transferencias de capital pagadas, por lo que el superávit se ha visto reducido en un 30,8%.

**GRÁFICO 8.14. GRAFIKOA**  
**Kudeaketa propioko gastuaren egituraren ratio nagusiak**  
**Principales ratios de la estructura del gasto propio de gestión**



Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egitura aztertzerakoan interesgarria gertatzen da 8.14. grafikoa ageri diren ondorengo ratioak nabarmentzea:

- Aurrezkia sarrera arrunt propioekin erlazionatzen duena.
- Inbertsio garbia kudeaketa propioko gastu arruntekin erlazionatzen duena.
- Aldundiaren baliabide propioekin finantzaturako inbertsioak jasotzen dituen. Hau da, kanpoko finantzaziorik gabe egindako inbertsioak (inbertsio garbiak – jasotako kapital transferentziak) kudeaketa propioko gastu arruntekin erlazionatzen dituen.

Sarrera arrunt propioetan aurrezkiak zenbat hartzen duen aztertzean datu hauek geratzen dira agerian:

- Epealdian ez da gorabehera handirik ikusten; bariantza bost puntu portzentualekoa da, eta 1999ko %51,5etik 2001eko %46,7ra bitartean dabil.
- Beheranzko joera nabari da. Izan ere, 1999an hiru puntu portzentual igo ondoren, hurrengo bi ekitaldietan behera egiten du: ia bost puntu jaisten da 2000n eta puntu bat 2001ean. Azken ekitaldian, beraz, aurrezkiak sarrera arrunt propioen %46,7 hartzen du.

A la hora de analizar la estructura del presupuesto propio no financiero resulta interesante resaltar los siguientes ratios recogidos en el gráfico 8.14.:

- El que relaciona el ahorro con los ingresos corrientes propios.
- El que relaciona la inversión neta con los gastos corrientes de gestión propia.
- El que recoge la parte de las inversiones financiada con los recursos propios de la diputación. Es decir, se relacionan las inversiones sin la parte que corresponde a la financiación externa (inversiones netas – transferencias de capital recibidas) con los gastos corrientes de gestión propia.

Al analizar el ahorro en términos de participación de ingresos corrientes propios, se aprecia que en el periodo presenta:

- Pocas fluctuaciones ya que tiene una amplitud de variación de cinco puntos porcentuales al variar desde el 46,7% obtenido en 2001 al 51,5% de 1999.
- Una tendencia descendente, ya que tras aumentar tres puntos porcentuales en 1999, desciende en los dos ejercicios siguientes: casi cinco puntos en 2000 y un punto porcentual en 2001, por lo que en el último ejercicio el ahorro representa el 46,7% de los ingresos corrientes propios.

Inbertsio garbiak eta kudeaketa propioiko gastu arruntak erlazionatzen dituen ratioan aurrekoan baino gorabehera gehiago ageri dira. Tartearen zabalera 27 puntu portzentualekoa da, ekitaldi batean gora eginez eta hurrengoan jaitsiz, nahiz eta oro har hartuta goranzko joera nagusitzen den. 1998an %49,6an du abiapuntua, eta 1999an %62,4 gehitu ondoren, 2000n %58,9ra jaisten da. Azken ekitaldian, ratioa %76,9an geratuenez, kudeaketa propioiko gastu arruntaren hiru laurden baino gehiago inbertsio errealek bideratu da.

Jasotako kapital transferentziak kentzean, azken ratioan desagertu egiten da kanpoko finantzazioaren bilakaera aldakorren eragina. Tartearen zabalera 19 puntu portzentualera murrizten delako antzematen da hori. Ikus daitekeenez, aztertutako lau urteetan goranzko joera da nagusi, erdiko urteetan gorabehera batzuk badaude ere: 1999an hamazazpi puntu portzentual gehitu ondoren, hurrengo urtean bederatzi puntu jaisten da, eta azken ekitaldian hamar puntuko igoera lortzen du. 2001. ekitaldian urteko inbertsio garbien erdia baino gehiago (%55,4) baliabide propioekin finantzatu dira.

Beraz, azken bi ratioak konparatzen badira, hau da, inbertsio garbia eta baliabide propioekin finantzatutako inbertsioa kudeaketa propioiko gastu arruntarekin erlazionatzen dituztenak, ondorio hauxe atera dezakegu: 2001eko ekitaldiko gastuaren egiturak 2000ko profil inbertsorea areagotzen duela eta ez dela defiziterako tentsiorik somatzen, zorra nabarmen murriztea lagun.

Laburbilduz, 2001. urtean sarrerak gastu arrunt propioak baino gutxiago hazi dira eta, horrek aurrekia jaiste ekarri du. Era berean, inbertsioak handitzeko joera asko areagotu da ekitaldian, eta horren ondorioz superabita 27 milioi euro murriztu da.

#### 8.1.4. KUDEAKETA GASTUAK

Kudeaketa propioiko gastu ez-finantzarioak honako gastuok biltzen ditu departamentuen arabera banatuta:

- Langileria gastuak.
- Ondasun eta zerbitzuen erosketa arruntak.
- Transferentzia arruntak (erakundearteko konpromisoak sartu gabe).
- Inbertsio errealak.
- Kapital transferentziak.

El ratio que relaciona las inversiones netas con los gastos corrientes de gestión propia presenta más fluctuaciones que el anterior, con una amplitud de intervalo de 27 puntos porcentuales y con aumento en un ejercicio y disminución al siguiente, aunque en conjunto muestra una tendencia ascendente. Concretamente parte de un 49,6% en 1998, y tras aumentar un 62,4% en 1999, vuelve a descender hasta el 58,9% en 2000. En el último ejercicio el ratio se ha situado en el 76,9%, por lo que más de tres cuartos del gasto corriente de gestión propia se ha destinado a inversiones reales.

En el último ratio, al detraer las transferencias de capital recibidas, se consigue eliminar el efecto de la evolución errática de esta financiación externa. Ello se aprecia en que la amplitud del intervalo desciende a 19 puntos porcentuales. Se observa que en los cuatro años recogidos existe una tendencia ascendente con una oscilación en los años intermedios: tras aumentar en diecisiete puntos porcentuales en 1999, al año siguiente desciende en nueve puntos para volver a aumentar en diez puntos en el último ejercicio. En el año 2001 son financiadas con recursos propios más de la mitad (el 55,4%) de las inversiones netas realizadas durante el año.

En consecuencia, si se comparan los dos últimos ratios (los que relacionan la inversión neta y la inversión financiada con recursos propios, con el gasto corriente de gestión propia) se desprende que la estructura del gasto del ejercicio 2001 acentúa el perfil inversor de 2000, sin notar tensiones deficitarias y acompañada de una importante reducción de la deuda.

En resumen, en 2001 el aumento de los ingresos ha sido inferior al de los gastos corrientes propios, lo que ha producido que el ahorro disminuya. Así mismo, en este año se acentúa de forma significativa la tendencia al aumento de las inversiones por lo que el superávit desciende en 27 millones de euros.

#### 8.1.4. GASTOS DE GESTIÓN

El gasto no financiero de gestión propia distribuido por departamentos recoge los siguientes gastos:

- Los de personal.
- Compras corrientes de bienes y servicios.
- Transferencias corrientes (excluidos los compromisos institucionales).
- Inversiones reales.
- Transferencias de capital.

Bestalde, departamentuak taldekatu daitezke jar-duera gutxi-asko homogeneoetan garatzen duten funtzio nagusiaren arabera, ondoko banaketa funtzionalari jar-raiki:

- Administrazio orokorra:
  - . Diputatu Nagusia
  - . Ogasun eta Finantza Departamentua
  - . Lehendakaritza Departamentua
- Gizarte Babesa:
  - . Gizartekintza Departamentua
- Gizarte Ondasunen Ekoizpena:
  - . Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua
- Ondasun Ekonomikoen Ekoizpena:
  - . Garraio eta Errepide Departamentua
  - . Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentua
- Ekoizpen Sektoreen Sustapena:
  - . Ekonomia eta Turismo Departamentua
  - . Nekazaritza eta Ingurumen Departamentua

Kudeaketa gastu propioak ekitaldi guztietan egin du gora: 1999an eta 2000n %9 handitu da, eta azken ekitaldian %15,9raino bizitu du hazkunde erritmoa. Aztertutako lau urteak harturik, hazkundera %37,8koa da.

Jardueren bilakaera ez da kudeaketa gastu osoarena bezain uniforme izan:

- Hiru dira epealdian hazkunde positiboa lortu duten funtzioak: administrazio orokorra, ondasun ekonomikoen ekoizpena eta gizarte babesa. 2001ean azken funtzio horretan bakarrik jaitsi da hazkunde erritmoa.
- Gizarte ondasunen ekoizpenak gastua murriztu du bai 1999an eta bai 2000n; aldiz, azken ekitaldian gastua gehitu egin da funtzio honetan eta hazkunde positiboa lortu du.
- Ekoizpen sektoreen sustapenak, 1999an jaitsi ondoren, goranzko joera erakutsi du azken bi ekitaldietan.

Por otro lado, se pueden agrupar los distintos departamentos en base a la función predominante que desarrollan en actividades más o menos homogéneas, de acuerdo al siguiente desglose funcional:


- Administración general:
  - . Diputado General
  - . Dep. de Hacienda y Finanzas
  - . Dep. de Presidencia
- Protección Social:
  - . Dep. de Servicios Sociales
- Producción de Bienes Sociales:
  - . Dep. de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes
- Producción de Bienes Económicos:
  - . Dep. de Transportes y Carreteras
  - . Dep. de Obras Hidráulicas y Urbanismo
- Fomento de Sectores Productivos:
  - . Dep. de Economía y Turismo
  - . Dep. de Agricultura y Medio Ambiente

El gasto propio de gestión aumenta en todos los ejercicios: en 1999 y 2000 crece en ambos un 9%, y en el último ejercicio acelera su ritmo de crecimiento hasta el 15,9%. En los cuatro años recogidos presenta un crecimiento del 37,8%.

La evolución de las distintas actividades no es tan uniforme como la del total del gasto de gestión:

- La funciones que manifiestan un crecimiento positivo en el periodo son: la administración general, la producción de bienes económicos y la protección social. Esta última es la única que desciende su ritmo de crecimiento en el último año.
- La producción de bienes sociales, tras un descenso en el gasto tanto en 1999 como en 2000, aumenta y obtiene un incremento positivo en el último ejercicio.
- El fomento de sectores productivos, tras descender en 1999, muestra una tendencia ascendente en los dos últimos ejercicios.

GRÁFICO 8.15. GRAFIKOA  
Kudeaketa propioko gastuaren bilakaera funtzioen arabera  
Evolución funcional del gasto propio de gestión



Aurreko urtearekin konparatuz gero, aipatzekoa da 2001ean kudeaketa gastu propioa talde guztietan gehitu dela. Gizarte babesarena da hazkunde erritmoa moteldu duen bakarra.

Gastu arrunt propioaren kopururik handiena (%41,7) **ondasun ekonomikoek** hartzen du, eta talde funtzional hau da, orobat, epealdiko hazkunde tasarik handienak izan dituen: %21,9 1999an, %13,7 2000n eta %31,8 azken ekitaldian. Hala ere, funtzio hori egiten duten bi departamentuek ez dute bilakera bera izan:

- Garraio eta Errepide departamentuak hazkunde tasa handiak ditu: lau urte hauetan %107,9 gehitu da guztira, besteak beste, Etxegarateko mendatean eta Eibar-Gasteiz saihebidetan egin diren obra handiak direla-eta.
- Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako departamentuan, berriz, epealdiko igoera %9,2koa baino ez da izan, eta lehen bi urteetan tasa negatibok ditu. Gastuak azken ekitaldian bakarrik egin du gora (%55,5).

Gastua gehien handitu duen bigarren taldea **gizarte babesarena** da (%24,6) Gizartekintza departamentuaren barruan. Lau urte hauetan %22,8 gehitu da,

Es destacable que en 2001, con respecto al año anterior, todos los grupos aumentan su gasto de gestión propia, siendo el de la protección social el único que presenta una desaceleración en su ritmo de crecimiento.

El grupo funcional que concentra la mayor cuantía de gasto corriente propio (41,7%) es el de **la producción de bienes económicos**, y es, así mismo, el que presenta las mayores tasas de crecimiento en el periodo. Concretamente aumenta un 21,9% en 1999, un 13,7% al año siguiente y un 31,8% en el último ejercicio. Sin embargo, los dos departamentos que realizan esta función no evolucionan de la misma manera:

- El departamento de Transportes y Carreteras experimenta elevadas tasas de crecimiento: en los cuatro años recogidos aumenta un 107,9%, debido, entre otras, a las grandes obras del Puerto de Etxegarate o la variante Eibar-Gasteiz.
- El departamento de Obras Hidráulicas y Urbanismo, en cambio, sólo aumenta un 9,2% en el periodo, y presenta tasas negativas en los dos primeros años, siendo únicamente en el último ejercicio cuando incrementa su gasto en un 55,5%.

El segundo grupo con mayor concentración de gasto (el 24,6%) es el de **la protección social**, constituido por el Departamento de Servicios Sociales. En

eta bai 1999an eta bai 2000n goranzko erritmoa da nagusi (%9,2 eta %10,7 hurrenez hurren); azken ekitaldian erritmo hori moteldu egin da eta %1,6 baino ez da gehitu, 2001eko tasarik txikiena talde guztiak hartuta.

Hurrengo talderik garrantzitsuen **administrazio orokorrarena** da. 2001eko gastuaren %16,2 hartzen du eta %15,8ko hazkundera du epealdian: moderatua lehen bi ekitaldietan (%3,7 1999an eta %3,2 2000n), eta biziagoa azken urtean (%8,2). Talde hau osatzen duten departamentuek bilakaera desberdina dute:

- Diputatu Nagusiaren departamentuak hazkunde tasa handiak ditu, 2000. urtean moderatu egiten direnak. Lau urte hauetan %75,7 gehitu du gastua.
- Ogasun eta Finantza departamentuak igoera moderatuagoa du, eta gehikuntzarik handiena azken ekitaldian ageri da. %19,8 gehitu da epealdian.
- Lehendakaritza departamentuak ez du aurrekoen moduan jokatu: gastua %6,8 gutxitu da 1999an eta %0,3 2000. urtean. 2001ean, ordea, %2,7 gehitu da. Epealdian %4,6 jaitzi da guztira.

Laugarren tokian, gastuaren %10,2rekin, **ekoizpen sektoreen sustapena** dago. %11,5 gehitu da epealdian, eta hazkunde joera nabari zaio: 1999an %8,6 jaitzi ondoren, hurrengo urtean %8,2 gehitu da eta azken ekitaldian %12,7 egin du gora. Joera hori taldea osatzen duten bi departamentuetan ere sumatzen da:

- Ekonomia eta Turismo departamentua lehen urtean jaisten da, baina hurrengo bietan gora egiten du, 2000. urtean tasarik handiena lortuz. Aztertutako lau urteetan gastua %13,2 gehitu da.
- Nekazaritza eta Ingurumen departamentuak joera moderatuagoa du: gastua lehen urtean jaitzi ondoren, 2000. urtean %3,4 gehitzen da eta %14,7 2001ean, gastuaren hazkunde metatua %10,8koa delarik.

estos cuatro años crece un 22,8%, con un ritmo ascendente tanto en 1999 (9,2%) como en 2000 (10,7%); ritmo que se ha ralentizado en el último ejercicio en que sólo crece un 1,6%, siendo esta la tasa más baja de entre todos los grupos en 2001.

El siguiente en importancia es el de **la administración general**, que representa el 16,2% del gasto de 2001, y que crece un 15,8% en el periodo, con un ritmo moderado en los dos primeros ejercicios (3,7% en 1999 y 3,2% en 2000) y un incremento superior en el 2001 al crecer un 8,2%. Los departamentos que forman este grupo presentan distinta evolución:


- El departamento del Diputado General muestra elevadas tasas de crecimiento, con una moderación en 2000. En estos cuatro años ha crecido un 75,7%.
- El departamento de Hacienda y Finanzas se comporta de forma más moderada con un mayor crecimiento en el último ejercicio. En el periodo recogido ha aumentado un 19,8%.
- El departamento de Presidencia, a diferencia de los anteriores, presenta un descenso del gasto en 1999 (-6,8%) y en 2000 (-0,3%), aumentando en 2001 un 2,7%. En total, en el periodo ha descendido un 4,6%.

En cuarto lugar se encuentra **el fomento de los sectores productivos**, que representa el 10,2% del gasto, con un crecimiento en el periodo del 11,5% y una tendencia de crecimiento elevado ya que tras descender un 8,6% en 1999, al año siguiente aumenta un 8,2% y en el último ejercicio un 12,7%. Esta tendencia se aprecia también en los dos departamentos que componen el grupo:


- El departamento de Economía y Turismo desciende en el primer año y aumenta en los dos siguientes, siendo la tasa más elevada la correspondiente a 2000. En los cuatro años recogidos se incrementa en un 13,2%.
- El departamento de Agricultura y Medio Ambiente, presenta una tendencia más moderada, y tras la disminución del gasto en el primer año, aumenta un 3,4% en 2000 y un 14,7% en 2001, con un crecimiento acumulado del gasto del 10,8%.

GRÁFICO 8.16. GRAFIKOA  
**Funtzioen eta departamentuen bilakaera**  
 Evolución de las distintas funciones y departamentos


**Ondasun Ekonomikoen Ekoizpena / Producción de Bienes Económicos**



**Ekoizpen Sektoreen Sustapena / Fomento de Sectores Productivos**



**Administrazio Orrokorra / Administración General**



Miloi eurokotan / En millones de euros

Azkenik, **gizarte ondasunen ekoizpenak**, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol departamentuari dagokionak, kudeaketa propioko gastu ez-finantzariorik txikiena du (%7,3). Epealdiko hazkunde metaturik txikiena ere talde honetan dago (%10,9). 1999an eta 2000n

Por último, el grupo con menor representación del gasto no financiero de gestión propia (7,3%) es la actividad de **producción de bienes sociales** que corresponde al departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes. Es también el grupo con menor crecimiento

gastuak behera egiten du, %0,7 eta %2,6 hurrenez hurren. Aldiz, azken ekitaldian %14,6 gehitu da.

## 8.2. ZERGA ITUNDUAK ETA ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK

### 8.2.0 SARRERA

8.1 apartatuan Foru Aldundiaren aurrekontu propioa aztertu da, eta ikusi dugu 2001. urtean 463 milioi euroko gastu ez-finantzarioa izan duela. GFaren gastu ez-finantzario guztiak, ordea, 2.735 milioi eurokoak izan dira eta horietatik 2.272 milioi Erakundearteko Konpromisoei dagozkie, hau da, beste erakunde publikoekin dauden obligazio legalak betetzeko erabili dira (Estatuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako udalen gastuak finantzatzeko). Zifra horietatik ondorioztatu daitekeenez, foru administrazioa baliabideak banatzen dituen administrazioa da beste ezeren gainetik.

Bestalde, aurreko apartatuan aipatu dugu GFari egotzitako zerga itunduak, hau da, foru entearen gastu propioak finantzatzeko erabilitakoak, 424 milioi eurokoak izan direla zerga itunduengatik 2001ean bildutakoa 2.690 milioi eurokoa izan denean. Jakinaenez, lehen zifra hori (424 milioi) bi kontzeptu hauen arteko diferentziaren emaitza da:

- Zerga itunduak: 2.690 milioi, ken
- Erakundearteko konpromisoak: 2.266 milioi euro garbi, 6 milioiko sarrerak izan direlako.

Dena den, esan behar da GFari zerga itunduengatik egotzitako zifrak aurkeztean bazterrean utzi dela GFarentzat oso garrantzitsua den jarduera bat, zerga itunduen bilketa alegia.

8.2 apartatu honetan hiru gai aztertuko ditugu:

- Zergabilketa jarduera.
- Baliabideak banatzeko zeregina.
- GFari egotzitako zerga itunduen zehaztapena.

Foru Ogasunaren txosten honetako 7. kapituluaren informazio zehatza eman dugu jada zerga itunduen bilketa lanari dagokionez. Nolanahi ere, apartatu honetan esparru zabalagoan kokatuko ditugu emaitzak, EAEko beste aldundietan izandako bilketarekin konparatuz eta sarrera publikoak Gipuzkoako ekonomiarekin erlazionatuz.

Erakundearteko Konpromisoak ez ditu GFak erabakitzen:

acumulado en el periodo (el 10,9%). Tanto en 1999 como en 2000 presenta un descenso en su gasto, un 0,7% y un 2,6% respectivamente. Sin embargo, en el último ejercicio el gasto crece un 14,6%.

## 8.2. TRIBUTOS CONCERTADOS Y COMPROMISOS INSTITUCIONALES

### 8.2.0 INTRODUCCIÓN

En el apartado 8.1 se ha analizado el presupuesto propio de la Diputación Foral cuyo gasto no financiero asciende a 463 millones de euros en 2001. Sin embargo, los gastos no financieros totales de la DFG son 2.735 millones de los que 2.272 corresponden a Compromisos Institucionales derivados de obligaciones legales para financiar los gastos de otras instituciones públicas como son el Estado, el Gobierno Vasco y los Ayuntamientos de Gipuzkoa. Como puede colegirse de las cifras anteriores la administración foral es ante todo una administración distribuidora de recursos.

Por otro lado, el apartado anterior se ha referido a los 424 millones de Tributos Concertados imputados a la DFG que se destinan a financiar los gastos propios del Ente Foral, cuando la recaudación por tributos concertados asciende a 2.690 millones en el ejercicio 2001. Como se sabe la primera cifra (424 millones) se obtiene por diferencia entre:

- Los Tributos Concertados: 2.690 millones
- Los Compromisos Institucionales: 2.266 millones netos, ya que ha habido ingresos por 6 millones.

Pero la presentación de las cifras de Tributos Concertados imputados a la DFG obvia una actividad importante para la DFG como es la actividad recaudadora de los Tributos Concertados.

En este apartado 8.2 se van a tratar tres cuestiones:

- La actividad recaudatoria.
- La función distribuidora de recursos.
- La determinación de los Tributos Concertados imputados a la DFG.

La actividad recaudatoria de Tributos Concertados ya se ha mostrado de forma detallada en el capítulo 7 de este informe de la hacienda foral, pero en este apartado se sitúan los resultados en un marco más amplio ya que se compara con la recaudación de las otras diputaciones de la CAPV y se relacionan los ingresos públicos con la economía del Territorio.

Los Compromisos Institucionales vienen determinados de forma exógena a la DFG:

- Kупoa Estatuaren Kupo Legean jasotzen diren irizpideen arabera finkatzen da.
- Ekarpinak Eusko Legebiltzarrak onartzen duen Ekarpinen Legean finkatzen dira.
- Udalak Finantzatzeko Foru Fondoa Batzar Nagusiek onartzen duten foru arauaren bidez finkatzen da Ekarpinen Legean jasotako gomendioei jarraiki.

Zerga itunduen kudeaketa foru organoen erantzukizuna bada ere, Aldundiak maila instituzional desberdinen artean banatu behar ditu bere baliabideak aurrez ezartzen diren irizpideei jarraiki. Horrek esan nahi du bere sarrerren kudeaketa eta kudeaketa gastuetarako dituen baliabideak disoziatu behar direla eta disoziazio horren ondorioz zerga itunduen eta GFARI egotzitako zerga itunduen eboluzioa desberdina izaten dela. Apartatu honetan agerian jarri nahi da zentzuk diren disparitate hori eragiten duten faktore nagusiak, hau da, zein faktorek erabakitzen duten erakundearteko konpromisoen zenbatekoa.

Azalpena egiteko honako faktoreak aukeratu dira:

- Estatuko autonomia erkidegoei laga gabeko zerga itunduen bilakaera, Kupoaren eguneratze indizea konfiguratzen duena.
- EAEko zerga itunduen bilakaera, lehen esandako indizearekin batera Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpinak finkatzeko erabiltzen dena.
- Ekarpin horizontalaren indizea, kupo eta ekarpinak lurraldeen artean banatzen dituen.
- Kupoaren desplazamendu efektua, haren likidazioa hurrengo urtean egiteagatik gertatzen dena.
- Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren bilakaera.

### 8.2.1. ZERGA ITUNDUAK. KONPARAZIOA EAE-REKIN

Hemen aztertzen den zergabilketa Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itunduen bilketa likidoari dagokio. Zerga horiek banaketari lotuta daude eta honela sailkatzen dira:

- zuzeneko zergak,
- zeharkako zergak,
- tasak eta bestelako sarrerak, eta
- doikuntzen bidez bildutakoa.

- El Cupo se determina a partir de los criterios que se recogen en la Ley del Cupo del Estado.
- Las aportaciones vienen determinadas en la correspondiente Ley de Aportaciones aprobada por el Parlamento Vasco.
- El Fondo Foral de Financiación Municipal se determina mediante Norma Foral que, si bien aprueban las Juntas Generales del Territorio, sigue las recomendaciones contenidas en la Ley de Aportaciones.

Los órganos forales son responsables de la gestión de los tributos concertados; sin embargo, deben repartir los recursos entre los diferentes niveles institucionales siguiendo criterios predeterminados. De aquí nace una disociación entre las gestión de sus ingresos y los recursos disponibles para sus gastos de gestión. Disociación que se traduce en una evolución dispar de los Tributos Concertados y los Tributos Concertados imputados a la DFG. En este apartado se pretende aislar aquellos factores más relevantes que explican esta disparidad y que no son otros que los factores que determinan la cuantía de los compromisos institucionales.

Los factores explicativos seleccionados son:

- La evolución de los Tributos Concertados no cedidos a las CCAA del Estado que configuran el índice de actualización del Cupo.
- La evolución de los Tributos Concertados de la CAPV que junto con el anterior determinan las aportaciones al Gobierno Vasco.
- El índice de aportación horizontal que reparte el cupo y las aportaciones entre los territorios.
- El efecto desplazamiento del Cupo que se produce por el hecho de que éste se liquide el año posterior al de referencia.
- La evolución del Fondo Foral de Financiación Municipal.

### 8.2.1. TRIBUTOS CONCERTADOS. COMPARACIÓN CON LA CAPV

La recaudación aquí analizada corresponde a la recaudación líquida de los tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas y que están sujetos a reparto. Estos tributos se clasifican entre:

- impuestos directos,
- impuestos indirectos,
- tasas y otros ingresos y
- recaudación vía ajuste.

Datuak hiru lurralde historikoek 1997tik 2001era bitartean egindako bilketatik hartu dira, eta horien batura EAERI dagokiona da. Urte horietan honako hau nabarmendu daiteke:

- 1997an zerga berriak hasten dira biltzen:
  - . Ez-egoiliarren errentak kargatzen dituen zuzeneko zerga.
  - . Aseguruen gaineko zerga, zeharkakoa hau.
  - . Fabrikazio zerga bereziak: alkohola, hidrokarburuak, tabako laboreak eta garagardoa. Zeharkako zergetan sarrerak Aldundiak kudeatutako zergen bidez nahiz doikuntzen bidez lortzen dira.
- 1998an, zerga berezi horiei elektrizitatearen gaineko zerga gehitzen zaie.


8.17. grafikoan ikus daitekeenez, 1997an hasitako bilketa berria hurrengo urtean gauzatzen da bete-betean; zergabilketa puntu portzentual bat gehitzen da urte horretan eta lurralde bakoitzeko BPGren %20 inguru hartzen du. Aldiz, elektrizitatearen gaineko zergaren bilketa, 1998an egiten hasi zena, txikiagoa da eta apenas du zergabilketan eraginik. Horren ondorioz, gainerako urteetan zergabilketa BPG nominalaren %20tik gertu matentzen da.

Los datos provienen de la recaudación realizada desde 1997 a 2001 por los tres territorios históricos y el sumatorio de ellos es el correspondiente a la CAPV. En estos años cabe resaltar que:

- En 1997 se inicia la recaudación de nuevos impuestos:
  - . El impuesto directo que grava las rentas de los no residentes.
  - . El impuesto indirecto sobre seguros.
  - . Los impuestos especiales de fabricación: alcohol, hidrocarburos, labores del tabaco y cerveza. Estos obtienen ingresos tanto en impuestos indirectos por gestión propia, como vía ajustes.
- En 1998 se añade a estos impuestos especiales el correspondiente a la electricidad.

La nueva recaudación iniciada en 1997 alcanza su plena actividad al año siguiente, como se puede apreciar en el gráfico 8.17., ejercicio en el que la recaudación aumenta en un punto porcentual pasando a suponer en torno al 20% del PIB de cada territorio. En cambio la recaudación por el impuesto sobre la electricidad que se inicia en 1998 es de menor cuantía por lo que no afecta casi a la recaudación, y ésta se mantiene en el resto de los años próxima al 20% del PIB a precios corrientes.

**GRÁFICO 8.17. GRAFIKOA**  
**Zerga itunduen bilketa BPGren aldean lurraldeen arabera**  
 Recaudación de tributos concertados en relación con el PIB por territorios



Batera harturik, eta 1997. urtea alde batera utziz gero, zerga itunduen bilketak eremu geografiko bakoitzeko BPGren %20 inguru hartzen du, eta bariazioa ez da puntu portzental batera iristen. Hala:

- Portzentajerik handiena Bizkaian ageri da: bilketa bertako BPGren %20,2 eta %20,9 bitartean dago. 1997an %19,5koa zen.
- Gipuzkoako bilketa %19,4 eta %20,1 bitartean dabil. 1997an %19,0koa zen.
- Arabak portzentaje txikiagoak baditu ere, egonkorragoak dira: bere BPGren %19,5 eta %19,8 bitartean daude portzentajeak. 1997an %18,6koa izan zen.

Azpimarratzekoa da Bizkaiko eta Gipuzkoako portzentajerik txikienak epealdiko azken ekitaldian ageri direla, 1997. urtea kenduta. Aldiz, Arabak 1998an du portzentajerik txikiena.

Lurralde historiko bakoitzak EAEko bilketa osoan duen partaidetzaren datuak aztertzean agerikoa da Bizkaia pisu handia hartzen duela, bildutako guztiaren erdia baino gehiago hari baitagokio urtero. Atzetik Gipuzkoa dator kopuru osoaren heren batekin, eta azken tokia Arabak hartzen du gainerako %16,2rekin.

Aztertutako lau urteetan ia ez dago aldaketarik:

- Bizkaia dagokionez, 1998an eta 1999an jaitsiera txiki bat dago, hurrengo urtean berreskuratu egiten dena; azken ekitaldian iagoera hori moderatu egin da eta autonomia erkidegoan bildutako guztiaren %51,2 metatu du.
- Gipuzkoak kontrako mugimendua izan du. Izan ere, Bizkaiko beherakadak Gipuzkoako partaidetza handitzea ekarri du, nahiz eta hurrengo bi urteetan iagoera moderatu egin den. 2001ean EAEko zerga itunduen %32,6 bildu du.
- Arabak apenas du epealdian bariaziorik, dezima bat eta bi dezima portzental inguru baino ez, eta Gipuzkoako portaera bera erakutsi du. Azken ekitaldian zergabilketa osoaren %16,3 hartu du.

En conjunto, salvo en 1997, la recaudación de los tributos concertados supone alrededor del 20% del PIB de cada ámbito geográfico con una variación inferior a un punto porcentual. En concreto:

- Bizkaia es el territorio con mayor porcentaje con una recaudación que representa entre el 20,2% y el 20,9% de su PIB. En 1997 era el 19,5%.
- Gipuzkoa presenta una recaudación entre el 19,4% y el 20,1%. En 1997 era el 19,0%.
- Araba muestra unos porcentajes inferiores pero más estables ya que se mueven entre el 19,5% y el 19,8% de su PIB. En 1997 se sitúa en el 18,6%.



Es destacable que, salvo para 1997, los porcentajes mínimos tanto de Bizkaia como de Gipuzkoa se han obtenido en el último ejercicio del periodo recogido. En Araba, en cambio, su menor porcentaje lo ha alcanzado en 1998.

Al analizar los datos sobre la participación de cada territorio histórico frente al total de la CAPV se aprecia el importante peso recaudatorio de Bizkaia, que en todos los años representa más de la mitad del total recaudado. Le sigue Gipuzkoa, que supone un tercio del total y, por último, Araba con el 16,2% restante.

En los cuatro años recogidos apenas se aprecian variaciones:

- En Bizkaia se produce un ligero descenso en 1998 y 1999, que se recupera al año siguiente, aunque en el último ejercicio se ha moderado, concentrando el 51,2% de la recaudación total de la comunidad autónoma.
- Gipuzkoa presenta el movimiento inverso, ya que el descenso de Bizkaia supuso un aumento de la participación guipuzcoana, que se ha visto moderada en los dos años siguientes. En 2001 ha recaudado el 32,6% de los tributos concertados de la CAPV.
- Araba apenas varía en el periodo en una o dos décimas porcentuales, mostrando el mismo comportamiento que Gipuzkoa. En el último ejercicio representa el 16,3% del total recaudado.

**GRÁFICO 8.18. GRAFIKOA**  
**Zerga itunduen bilketaren bilakaera lurraldeen arabera**  
 Evolución de la recaudación de tributos concertados por territorios  
 1997-2001



Epealdiko bilketaren bilakaerari dagokionez, bistakoa da Bizkaiak garrantzi handia duela zergabilketan eta bere bariazioak beste inorenak baino gehiago eragiten duela EAEko emaitza osoan. Azken honen bariazioa bide beretik dator, baina modu leunagoan. Horrela, 1998an bilketa osoa %14,5 igo ondoren, hurrengo urtean %8,5eraino jaisten da, eta 2000n %9,5eraino iristen da. Azken ekitaldian, ordea, %2,7 baino ez da gehitu.

Lurraldeka aztertuta, 1999an dezelerazio bat ikusten da hiru eremuetan; 2000. urtean, ordea, Arabak eta Gipuzkoak moteltze joerarekin jarraitzen duten bitartean (%7,9 eta %7,3 hurrenez hurren), Bizkaiak %11,3raino gehitzen du bere hazkunde erritmoa, eta 1999an baino hiru puntu portzentual gehiago lortzen ditu. Nolanahi dela ere, azken ekitaldian dezelerazio nabaria ikusten da hiru eremu geografikoetan, eta Bizkaian batik bat. Zehazki esanda, zergabilketa %1,8 gehitzen da Bizkaian, %3,6 Gipuzkoan eta %4,0 Araban.

Zerga kontzeptu bakoitzak autonomia erkidegoaren bilketa osoan duen garrantzi erlatiboa ez da asko aldatzen epealdian, 8.19. grafikoan ikus daitekeen moduan:

Con respecto a la evolución de la recaudación en el periodo, es patente la importancia recaudatoria de Bizkaia, por lo que su variación es la que más afecta al comportamiento del total de la CAPV, que varía en el mismo sentido aunque algo más suavizada. Así, la recaudación total, tras crecer un 14,5% en 1998, retrocede al 8,5% al año siguiente para mejorar hasta el 9,5% en 2000. Sin embargo, en el último año del periodo únicamente se ha incrementado un 2,7%.



Por territorios se pone de manifiesto también una desaceleración en 1999 en los tres ámbitos, pero mientras que en 2000 Araba y Gipuzkoa mantienen esta tendencia de moderación con el 7,9% y el 7,3% respectivamente, Bizkaia aumenta su ritmo de crecimiento hasta el 11,3%, tres puntos porcentuales superior a la tasa de 1999. En cualquier caso, a lo largo del último ejercicio los tres ámbitos geográficos muestran una importante desaceleración, que es más significativa en Bizkaia. Concretamente, Bizkaia crece sólo un 1,8%, mientras que la recaudación en Gipuzkoa se incrementa en un 3,6% y en Araba un 4,0%.

A lo largo del periodo la importancia relativa de cada concepto tributario sobre el total recaudado en la comunidad autónoma, según se recoge en el gráfico 8.19., no varía en gran medida:

- Zeharkako zergak epealdiko bilketaren erdia baino gehiago dira. 1997ko %50,5etik 2000ko %53,0ra bitartean mugitzen dira. 2001ean bakarrik galdu dute partaidetza, puntu t´erdia hain zuzen, eta bilketaren %51,5 izatera pasa dira.
- Zuzeneko zergak, zeharkakoen pisu erlatiboa igotzeagatik kaltetuak, partaidetza galdu dute epealdian: 1997ko %48,2tik 2000ko %45,9ra pasa dira. Azken ekitaldian bakarrik dute goraldi bat %47,4ra iristeraino.
- Tasak eta bestelako sarrerak apenas dira epealdiko %1,3-%1,1 inguru.

- Los impuestos indirectos representan más de la mitad de la recaudación en el periodo. Varían entre el 50,5% de 1997 y el 53,0% de 2000. Únicamente en 2001 se aprecia una pérdida de participación, de un punto y medio porcentual, al pasar a representar el 51,5% de la recaudación.
- Los impuestos directos son los que se han visto perjudicados por el aumento del peso relativo de los indirectos, y en el periodo han descendido su participación del 48,2% de 1997 al 45,9% en 2000. Únicamente presentan un repunte en el último ejercicio, al situarse en el 47,4%.
- Las tasas y otros ingresos apenas representan el restante 1,3%-1,1% en el periodo.

**GRÁFICO 8.19. GRAFIKOA**  
**Zerga itunduen bilketa osoaren bilakaera zerga kontzeptuen arabera**  
 Evolución de la recaudación total de tributos concertados por conceptos impositivos  
 1997-2001



Bi zerga talde nagusiek epealdian eman duten bilketari erreparatuz gero (ikus 8.20. grafikoa) agerian jartzen da zeharkako zergak gero eta garrantzi handiagoa hartzen dutela zuzeneko zergen kaltetan. Era berean, bietan hazkunde bat dagoela ikusten da, bi zerga moten bilakaera desberdina bada ere.

**Zeharkako zergak** %42,6 gehitu dira epealdian, eta 1997ko 2.984 milioi eurotik 2001eko 4.255 milioi

La recaudación de los dos grupos principales de impuestos a lo largo del periodo (gráfico 8.20.) pone de manifiesto la importancia cada vez mayor de los indirectos frente a los directos. Así mismo, muestra un crecimiento de ambos a lo largo del periodo, pero con una evolución distinta entre los dos tipos de impuestos.

Los **impuestos indirectos** crecen un 42,6% en el periodo al pasar de 2.984 millones de euros recaudados

eurora pasa dira. Hala ere, azken urte horretan bilketak atzera egin du epealdiko beste urteetan izandako joera hautsiz.

- 1998an %14,7 gehitzen dira.
- 1999ko eta 2000ko hazkunde tasa %11,5 inguruan dabil.
- 2001ean hazkundera gelditu egiten da eta urtearteko bariazio tasa -%0,2koa da.

**Zuzeneko zergak**, aldiz, gutxiago hazi dira epealdian (%37,4): hasierako 2.848 milioi eurotik 3.912 milioi eurora pasa dira azken urtean. Hazkunde tasak ekitaldi guztietan dira moderatuagoak, joera ere uniformeagoa da, eta 2001ean ez dute zeharkako zergen beharadarik izan:

- 1998an %14,4 gehitu dira, zeharkako zergen antzera.
- 1999an moteldu egiten dira eta iguera %5,8koa da soilik.
- 2000. urtean tasak hobera egiten du (%7,1).
- 2001ean puntu portzental bat jaisten da tasa eta hazkundera %6,1koa da.

en 1997 a 4.255 millones en 2001. Sin embargo, en este último año se aprecia un retroceso en la recaudación que rompe la tendencia del resto de los años del periodo:

- En 1998 crecen un 14,7%.
- Tanto en 1999 como en 2000 la tasa de crecimiento gira en torno al 11,5%.
- En 2001 se estancan y obtienen una tasa de variación interanual del -0,2%.

Los **impuestos directos**, en cambio, crecen menos en el periodo (un 37,4%) al aumentar de los 2.848 millones de euros iniciales a los 3.912 millones recaudados en el último año recogido. En todos los ejercicios presenta tasas de crecimiento más moderadas aunque con una tendencia más uniforme, sin producirse en 2001 el descenso de los impuestos indirectos:

- En 1998 crecen un 14,4%, tasa similar a la de los impuestos indirectos.
- En 1999 se desaceleran, y sólo aumentan en un 5,8%.
- En 2000 la tasa mejora hasta el 7,1%.
- En 2001 desciende en un punto porcentual, con un crecimiento del 6,1%.

GRÁFICO 8.20. GRAFIKOA  
Zerga itundu nagusien bilketa  
Recaudación de los principales tributos concertados  
1997-2001





GRÁFICO 8.21. GRAFIKOA  
**Zeharkako zergen bilketaren bilakaera**  
 Evolución de la recaudación de los impuestos indirectos  
 1997-2001



Zeharkako zergek zergatik duten zuzeneko zergek baino pisu handiagoa ulertzeko, kontuan eduki behar da 1997. urtetik aurrera zeharkako zergen barruan sarturik dauden zerga bereziak biltzen hasten direla. Horien barruan, bi sarrera bide erabiltzen dira bilketa egiteko: kudeaketa propioa eta doikuntzak.

Kudeaketa propioaren eta doikuntzen arteko banaketa aztertuz gero, lehenengoa bigarrenari nagusitzen zaiola ohartzen gara. Bi sarrera bide horien epealdiko bilakaerari dagokionez, alde esanguratsuak daudela ageritua da:

- Kudeaketa propioa %16,3 gehitzen da 1998an, eta hazkunde egonkorra mantentzen du hurrengo bi urteetan, txikiagoa bada ere: %10,4 1999an eta %11,2 2000n. Azken ekitaldian erritmoa moteldu egiten da eta igoera %3,2koa da soilik.
- Doikuntzen bidez lortutako sarrerak %9,7 gehitzen dira 1998an, eta gehiago tarteko urteetan: %14,8 1999an eta %13,6 hurrengo urtean. 2001ean bilketa gutxitzen dute %11,0ko tasa negatiboa emanez.

Este mayor peso de la imposición indirecta en detrimento de los impuestos directos, obedece a que, a partir de 1997, se inicia la recaudación de los tributos especiales incluidos en los impuestos indirectos. Dentro de ellos, la recaudación se realiza por dos vías de ingresos: gestión propia y ajustes.

Si analizamos la distribución entre gestión propia y vía ajustes, podemos apreciar la importancia de la primera frente a la segunda. En cuanto a la evolución en el periodo de ambas vías de ingreso, existen diferencias significativas:

- La vía de gestión propia, tras un aumento del 16,3% en 1998, mantiene un crecimiento estable aunque inferior: el 10,4% en 1999 y el 11,2% en 2000. En el último ejercicio minora el ritmo con un incremento de sólo el 3,2%.
- Los ingresos vía ajustes crecen menos en 1998 (el 9,7%) y más en los años intermedios: 14,8% en 1999 y 13,6% al año siguiente. En 2001, presentan un descenso en la recaudación alcanzando una tasa negativa del 11,0%.

## 8.2.2. ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK

Erakundearteko konpromisoek gastu masa handi bat eratzen dute, eta beren zenbatekoa aurrekontua baino lehen onartzen den Lege edo Foru Arau bidez finkatzen da. Hauek dira:

- Estatuarentzako Kupoa.
- Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak.
- Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak.

**Kupoa** Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztientzako kontribuzioa da, eta Ekonomia Itunean dator jasota. Bertan hauxe ezarzen da:

- Kalkulu metodologia bat.
- Bost urtetarako lege baten beharra. Lege horrek epealdiko kupoa finkatzeko metodologia zehazteaz gainera, bosturtekoaren lehen urtean aplikatuko den kupoa ere onartu behar du. 1997-2001 epealdian abuztuaren 4ko 37/1997 Legea egon da indarrean.

**Eusko Jaurlaritzaren aldeko Ekarpn**ak erabiltzen dira Ekonomia Itunaren kudeaketatik eratorzen diren sarrerak Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren eta foru ogasunen artean banatzeko, beti ere beren titulartzapean dauden eskumen edota zerbitzuen arabera. Baliabideak banatzeko metodologia eta lurralde historiko bakoitzaren ekarpenak Herri Finantzen Euskal Kontseiluak erabaki behar ditu eta Eusko Legebiltzarrean lege moduan aurkeztu. Aztertutako epealdian urriaren 31ko 6/1996 Legea egon da indarrean, 1997-2001 ekitaldiei aplikagarria.

Azkenik, **Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak** lurralde historikoko udalek zerga itunduen kudeaketatik eratorritako emaitzan duten partaidetza adierazten du. Hasiera batean partaidetza hori Gipuzkoako Aurrekontu Orokorretan ezartzen zen urte bakoitzerako, eta horrela izan da harik eta azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua, Udal Finantzaketarako Foru Fondoarena, onartu zen arte. Arau horrek indarrean darrari oraindik, nahiz eta bi aldaketa izan dituen Kupoa eta Ekarpn aldatzearen ondorioz. Gipuzkoako 1997. eta 1998. urteetako aurrekontu orokorrak onartzen dituzten 13/1996 eta 7/1997 foru arauetan jasota daude hurrenez hurren.

## 8.2.2. COMPROMISOS INSTITUCIONALES

Los Compromisos Institucionales son una importante masa de gasto cuya cuantía está predeterminada por Ley o Norma Foral anterior al presupuesto, se trata de:

- El Cupo al Estado.
- Las Aportaciones al Gobierno Vasco.
- El Fondo Foral de Financiación Municipal.

El **Cupo** representa la contribución a todas las cargas del Estado que no asume la Comunidad Autónoma, y viene recogido en el Concierto Económico, en el que se establece:

- Una metodología de cálculo.
- La necesidad de una ley quinquenal que determine la metodología de señalamiento del cupo que ha de regir en el periodo y que apruebe el cupo del primer año del quinquenio. Dentro del periodo analizado 1997-2001 está en vigor la Ley 37/1997, de 4 de agosto.

Las **Aportaciones al Gobierno Vasco** son el medio para distribuir entre la Hacienda General del País Vasco y las Haciendas Forales los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico, en función de las competencias y/o servicios de los que sean titulares. La metodología de distribución de los recursos y la determinación de las aportaciones de cada Territorio Histórico debe aprobarse por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas y elevarse al Parlamento Vasco en forma de ley. La normativa vigente en el periodo recogido es la Ley 6/1996, de 31 de octubre, aplicable a los ejercicios 1997/2001.

Por último, el **Fondo Foral de Financiación Municipal** representa la participación de los municipios del Territorio Histórico en el resultado de la gestión de los tributos concertados. Inicialmente se establecía dicha participación en los Presupuestos Generales de Gipuzkoa para cada año hasta que se aprobó la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal, normativa que sigue vigente y que ha sufrido dos modificaciones a raíz de la modificación del Cupo y las Aportaciones, recogidas en la N.F.13/1996 y la N.F.7/1997, de Presupuestos Generales de Gipuzkoa para 1997 y 1998 respectivamente.

### 8.2.2.1. KUPOA

EAE mailan, behin betiko kupoa, 8.22. grafikoan jasotzen dena, epealdiko urte guztietan aldatzen da. Eta hori hala gertatzen da nahiz eta kupoaren legea aplikatzen den bosturteko osoan eguneratze oinarri berbera erabiltzen den. Lege horrek, gainera, bost ekitaldietan egin beharreko kalkuluak ere jasotzen ditu.

Zehazki esateko, lehen ekitaldiko eguneratze oinarriaren elementuak eta egin beharreko kalkuluak honako hauek dira:

- Abiaburu-urteko behin-behineko kupoa: 686.936 mila euro.
- Ertzaintza finantzatzeko zenbatekoa: 344.256 mila euro.
- Behin-behineko eguneratze oinarria, hau da, aurreko bien batura: 1.031.192.
- Oinarri horri hau aplikatzen zaio:
  - . Abiaburu-urteko behin betiko eguneratze indizea (1,0303791). Hortik eguneratze oinarria lortzen da: 1.062.519.
  - . INSALUD eta IMSERSOri dagokien finantzazio gehigarria (25.255).
- Horren emaitza gisa bosturtekoaren eguneratze oinarria lortzen da: 1.087.774 mila euro.

Legea indarrean dagoen urte bakoitzean eragiketa hauek egiten dira bosturtekorako kalkulatu den eguneratze oinarritik abiatuta:

- EAEk bere gain hartzen dituen eskumen berriak kentzen dira, beti ere abiaburu-urtearen arabera baloratuak, hau da, eskumen horiek urte horretan zuten zenbatekoaren arabera. Emaitza berrikusitako eguneratze oinarria da.
- Haren gainean dagokion eguneratze indizea apikatzen da, bosturtekorako legearen 12.1 artikuluari jarraiki, eta kupu eguneratua lortzen da.

### 8.2.2.1. CUPO

El Cupo definitivo, a nivel de la CAPV, recogido en el gráfico 8.22. muestra una cuantía variable para cada año del periodo, aunque la base de actualización es la misma para el quinquenio en el que está vigente la ley de cupo correspondiente, en la que se recogen también los cálculos a realizar en los cinco ejercicios.


Concretamente, los elementos que componen la base de actualización del primer ejercicio y los cálculos a realizar son los siguientes:

- El cupo provisional del año base: 686.936 miles de euros.
- La cantidad destinada a financiar la ertzaintza. 344.256 miles de euros.
- La base de actualización provisional, que es la suma de los dos elementos anteriores: 1.031.192.
- A dicha base se le aplica:
  - . El índice de actualización definitivo del año base (1,0303791) obteniendo la base de actualización: 1.062.519.
  - . La financiación adicional correspondiente al INSALUD e IMSERSO (25.255).
- El resultado final es la base de actualización del quinquenio: 1.087.774 miles de euros.

En cada año de vigencia de la ley se parte de la base de actualización del quinquenio calculada y se realizan las siguientes operaciones:

- Se restan las nuevas competencias que asuma la CAPV, valoradas siempre con respecto al año base, es decir, por el importe que dichas competencias tenían en dicho año. El resultado es la base de actualización revisada.
- Sobre ella se aplica el índice de actualización correspondiente, según el artículo 12.1 de la ley quinquenal, y se obtiene el cupo actualizado.

GRÁFICO 8.22. GRAFIKOA  
**Epealdiko kupoa**  
 Cupo del periodo  
 1997-2001



	1997	1998	1999	2000	2001
<b>Eskumen berriak</b> Nuevas competencias (-)	362	3.466	3.473	3.486	3.486
<b>Berrikusatako eguneratze oinarria</b> Base actualización revisada (=)	1.087.412	1.084.308	1.084.301	1.084.288	1.084.288
<b>Eguneratze indizea 12.1 art.</b> Indice actualización art.12.1 (*)	1,0000000	1,0725537	1,1775642	1,2757278	1,3481749
<b>EGUNERATUTAKO KUPOA</b> CUPO ACTUALIZADO (=)	<b>1.087.412</b>	<b>1.162.979</b>	<b>1.276.835</b>	<b>1.383.256</b>	<b>1.461.810</b>
<b>Ertzaintza</b> (-)	345.291	337.394	377.908	372.996	373.937
<b>INSALUD eta IMSERSO</b> (-)	-102	72.330	62.356	78.302	108.159
<b>Zerga berezien konpents.fin</b> (-) Compensación financ.imp.esp.	23.287	34.739	35.183	42.437	46.106
<b>BEHIN BETIKO KUPOA</b> CUPO DEFINITIVO (=)	<b>718.936</b>	<b>718.516</b>	<b>801.388</b>	<b>889.521</b>	<b>933.608</b>

Mila eurokotan / En miles de euros


- Emaitza horri zenbateko hauek kentzen zaizkio:
  - . Ertzaintzari dagokiona.
  - . INSALUD ETA IMSERSOren finantzazioa.
  - . Zerga bereziak lagatzeagatik egin beharreko konpentsazio finantzarioak.
- Azken eragiketa horren emaitza behin betiko kupoa da.

Eskumen berriek 1998an bakarrik izan dute eragina, eta urte horretan igoera nabarmenak daude; aldis, gainerako ekitaldietan apenas dago aldaketarik. Eguneratutako kupoaren igoera handia, 1997 eta 2001 urte bitartean 374.398 mila eurokoa izan dena, ekitaldi bakoitzean aplikatutako eguneratze indizeari zor zaio. Alabaina, behin betiko kupoari dagokionez, diferentzia hori 214.672 mila euroraino jaisten da. Azken horrek beherakada txiki bat du 1998an; hala ere, gainerako ekitaldietan gora egiten du nabarmen, eta 2001ean 933.608 mila eurokoa da.

- A este resultado se le restan las cuantías correspondientes a:
  - . La ertzaintza.
  - . La financiación del INSALUD e IMSERSO.
  - . Las compensaciones financieras derivadas de la cesión de los impuestos especiales.
- El resultado de esta última operación es el cupo definitivo.

A lo largo del periodo las nuevas competencias únicamente tienen su incidencia en 1998, año en el que se incrementan de forma considerable, sin apenas variar en el resto de los ejercicios. El fuerte aumento del cupo actualizado se debe al índice de actualización aplicado en cada ejercicio, que ha producido que entre 1997 y 2001 haya aumentado en 374.398 miles de euros. Esta diferencia se ve disminuida hasta 214.672 miles de euros si se calcula con respecto al cupo definitivo. Éste desciende ligeramente en 1998 para posteriormente presentar fuertes aumentos en los restantes tres ejercicios, hasta llegar en 2001 a 933.608 miles de euros.

**GRÁFICO 8.23. GRAFIKOA**  
**Kupotik datozen kargak eta EA Eren baliabideak**  
 Cargas derivadas del Cupo y recursos de la CAPV



**Kupotik datozen kargen** baturak (ikus 8.23 grafikoa) kopuru handia adierazten du EA Erekin itundu-tako baliabideekiko. Zehazki esanda, karga horiek zerga itunduengatik epealdian bildu den guztiaren herena baino gehiago dira:

La suma de estas **cargas derivadas del cupo** (gráfico 8.23.) suponen una cuantía importante con respecto a los recursos concertados con la CAPV. Concretamente dichas cargas representan a lo largo del periodo más de un tercio del total recaudado por tributos concertados:

- %40,7 1997an
- %37,9 1998an
- %38,4 1999an
- %38,0 2000n
- %39,0 2001ean

- El 40,7% en 1997
- El 37,9% en 1998
- El 38,4% en 1999
- El 38,0% en 2000
- El 39,0% en 2001


**Eguneratze indizea** Estatuak erregimen komuneko autonomia erkidegoen esku uzten ez dituen zergen bilketa kontuan hartuz kalkulatzen da, hau da, alde bakarreko kalkulua da, Estatuko sarreretan bakarrik oinarritzen dena eta EA Eren bilketak duen portaerarekin zerikusirik ez duena. Horrek arrisku bat sortzen du autonomia erkidegoarentzat. Izan ere:

- EA Eko baliabideen bilakaera Estatuan baino txikiagoa bada, Kupoak baliabide horietan duen proportzioa handiagoa izango da.
- Aldiz, baliabide gehiago sortzen badira, kupoak proportzio txikiagoa izango du.

El **índice de actualización** se calcula en base a la recaudación por parte del Estado de los tributos no cedibles a las Comunidades Autónomas de Régimen Común; es decir, es un cálculo unilateral determinado únicamente por las cifras de ingresos del Estado y es independiente del comportamiento de la recaudación de la CAPV. Por ello, genera un riesgo para la comunidad autónoma de tal modo que:

- Si la evolución de los recursos en la CAPV es más reducida que en el Estado, la proporción que representa el Cupo sobre esos recursos será mayor.
- En cambio, una mayor generación de recursos supondrá que el cupo represente una proporción inferior.

**GRÁFICO 8.24. GRAFIKOA**  
**Kupoaren eta zergabilketaren indizeen bilakaera %-tan**  
 Evolución porcentual de los índices del Cupo y de Recaudación



Eguneratze indizeak eta EAEko zerga itunduen bilketak bilakaera desberdina dute beren bariazio tasetan (8.24 grafikoa). Hona hemen epealdiko bilakaera:

- Kupoaren proportzioa 1998an jaisten da, eta 1999an igo ondoren, hurrengo bi ekitaldietan behera egiten du berriro.
- EAEko bilketak alderantzizko bariazioa du: 1998an igo egiten da, eta 1999an jaitsi ondoren, 2000n gora egiten du berriro. 2001ean kupoaren indizearekin batera gutxitzen da, eta epealdiko minimoa lortzen du.

Portaera horren ondorioz, ekitaldi batean ere ez datoz bat bi aldagai horiek, eta bata besteari txandaka nagusitzen zaio:

- Kupoaren eguneratze indizearen bariazio tasa 1997, 1999 eta 2001ean da bilketarena baino handiagoa, Kupoak urte horietan baliabide gutxiago izatea dakarrelako.
- Bilketaren bariazio tasa 1998an eta 2000n da nagusi. Izan ere, bi urte horietan Kupoak karga gutxiago sortzen du baliabideekiko.


Las tasas de variación del índice de actualización y de la recaudación del conjunto de los Tributos Concertados de la CAPV (gráfico 8.24.) muestran a lo largo del periodo una evolución diferente:

- La proporción del Cupo descende en 1998, y tras aumentar en 1999 vuelve a descender en los dos ejercicios siguientes.
- La recaudación de la CAPV varía de forma inversa a la anterior; así en 1998 crece, descende en 1999 y vuelve a aumentar en 2000. En 2001, coincidiendo con el índice del cupo, descende y se sitúa en el mínimo del periodo.

Dado este comportamiento, las dos variables no coinciden en ningún ejercicio, siendo alternativamente una superior a la otra:

- La tasa de variación del índice de actualización del Cupo es superior a la de recaudación en los años 1997, 1999 y 2001; ejercicios en los que el Cupo representa una mayor detracción de recursos.
- La tasa de variación de la recaudación es superior en los ejercicios 1998 y 2000. En estos dos años, el Cupo representa una menor carga con respecto a los recursos.

**GRÁFICO 8.25. GRAFIKOA**  
**Ordaindutako kupoaren eta behin betiko kupoaren arteko aldea**  
 Diferencia entre Cupo pagado y Cupo definitivo



Bestalde, kupoaren tratamendua dela-eta, urte bateko likidazioa hurrengo urtean egiten da, eta horren ondorioz, diferentzia bat agertzen da behin betiko kupoaren eta ekitaldian benetan ordaindutakoaren artean. 8.25. grafikoan erakusten denez, aurreko ekitaldiko **kupoaren likidazioa** eta urte horretarako kalkulatzen den behin-behineko kupoa urte berean ordaintzen dira.

Aurreko bosturtekoaren ekitaldietako likidazioa jasotzen den urtea kenduta, epealdiaren gainerakoan urte bati dagokion behin betiko kupoa likidatzen da ekitaldi barruan ordaindu den behin-behineko kupoa eta hurrengo ekitaldian egindako likidazioa batuz lortzen da. Dena den, kupoa ekitaldi desberdinetan ordaintzen denez, fluxu finantzarioak sortzen dira Estatuaren eta EAEn artean, eta nolako zeinua duten, banatu beharreko baliabideak gehiago edo gutxiago izan daitezke:

- Aldea positiboa izateak esan nahi du autonomia erkidegoak ekitaldian ordaindu duena urte horri dagokion behin betiko kupoa baino handiagoa dela. 1998., 2000. eta 2001. urteak.
- Aldiz, zeinua negatiboa izanez gero, Estatuak kobratzen duena kupoagatik jaso behar lukeena baino txikiagoa da eta, beraz, autonomia erkidegoan banatu beharreko baliabideak gehitu egiten dira. 1997. eta 1999. urteak.

Hortaz, zerga itunduen bilketatik abiatzen bagara, baliabide erabilgarrien bariazioa hauxe izango da: bilketaren gehikuntza gehi kupoaren diferentzia negatiboa edo bilketaren gehikuntza ken kupoaren diferentzia positiboa. Hau da, EAEn urte bateko baliabideek aurreko urtearekiko duten bariazioan ondoko faktore hauek eragiten dute:

- Hauen arteko diferentziak:
  - . Kupoak erabilitako eguneratze indizea, ken
  - . Bilketaren benetako gehikuntza.
- Kupoa hurrengo ekitaldian likidatzeagatik Estatuaren eta EAEn artean sortzen den fluxuak.

Por otro lado, el tratamiento del Cupo provoca que la liquidación de un año se realice al año siguiente, por lo que existe una diferencia entre el cupo definitivo y el realmente pagado en el ejercicio. En un mismo año, según muestra el gráfico 8.25., se abona la **liquidación del Cupo** del ejercicio anterior y el cupo provisional calculado para ese año.

Salvo en el año en que se recoge la liquidación de los ejercicios del quinquenio anterior, en el resto del periodo el Cupo líquido definitivo de un año es la suma del provisional pagado en el ejercicio más la liquidación realizada en el ejercicio siguiente. Pero al ser abonado en ejercicios diferentes, se crean unos flujos financieros entre el Estado y la CAPV que, dependiendo del signo, suponen una mayor o menor disponibilidad de recursos a distribuir:

- En caso de que la diferencia sea positiva, significa que la comunidad autónoma ha pagado en el ejercicio mayor cantidad de la que supone el Cupo definitivo correspondiente a ese año. Años 1998, 2000 y 2001.
- En caso de que el signo sea negativo, el Estado cobra menos de lo que tendría que percibir en concepto de Cupo, de forma que aumentan los recursos a distribuir en la comunidad autónoma. Años 1997 y 1999.

Por lo tanto, partiendo de la recaudación de los tributos concertados, la variación de los recursos disponibles será igual al incremento de la recaudación más la diferencia negativa del Cupo ó menos la diferencia positiva del Cupo. Es decir, la variación de los recursos de la CAPV de un año en relación al año anterior se ve afectada por dos aspectos al mismo tiempo:

- La diferencia entre:
  - . El índice de actualización utilizado por el cupo.
  - . El incremento real de la recaudación.
- El flujo entre el Estado y la CAPV derivado de la liquidación del cupo en el ejercicio siguiente.

### 8.2.2.2. EUSKO JAURLARITZAREN ALDEKO EKARPENAK

Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak kalkulatzeko (ikus 8.26 grafikoa) zerga itunduen urteko bilketa-tik abiatu behar dugu, behar diren interesak gehitu eta, azkenik, zerga bereziak kontuan hartu gabe urtean bildutako sarrerren %6,3 kendu BEZak ordeztutako sarre-ren kontzeptupean. Horren emaitza ekitaldiko baliabideak dira. Kopuru horri kenkari jakin batzuk egiten bazaizkio, ekitaldian banatu beharreko baliabideak lortzen dira.

Bi motatako kenkariak aplika daitezke:

- Kupoaren metodologiatik datozenak, hau da, ekitaldiko kupoa kalkulatzeko erabilitako kopuruak:
  - . Ekitaldian ordaindutako kupoa (behin-behinekoa eta aurreko ekitaldiko likidazioa).
  - . Ertzaintzari dagokion kopurua.
  - . INSALUD eta IMSERSO finantzatzeko ezarritakoa.
- Gainerako kenkariak ekarpenen lege desberdinetan jasota daude, eta hauek dira:
  - . Lurralde historikoen legeak 22.3 artikuluan aipatzen dituen politiken finantzazioa.
  - . 3R planaren finantzazioa.
  - . Inbertsio estrategikoen fondoa.
  - . Epealdian bereganatu diren eskumen berriak finantzatzeko ezarritakoak.

Gainerako kenkariak biltzen dituen taldearen barruan, eskumen berriak finantzatzeko kenkariak bakarrik gertatu dira aplikagarriak 2001ean, 1997an bereganatutako eskumenen eta gainerako eskumen berrien artean bereiziz.

Baliabide guztiakin erlazionatuz gero, kenkari horien zenbatekoa handia da oso (baliabide guztien %40 eta %42,9 bitartean). Garrantzitsuenak kupotik datozenak dira, kenkari guztien %98 baino gehiago hartzen baitute. Hori dela eta, kupoaren portaerak berebiziko garrantzia du banatu beharreko baliabideen kalkuluan.

### 8.2.2.2. LAS APORTACIONES AL GOBIERNO VASCO

Para el cálculo de las Aportaciones al Gobierno Vasco (gráfico 8.26.) se parte de la recaudación de tributos concertados realizada en el año, se le añaden los intereses correspondientes y se detrae en concepto de ingresos sustituidos por el IVA el 6,3% de los tributos recaudados en el año sin tener en cuenta los impuestos especiales. El resultado es el total de los recursos del ejercicio. A este total se le restan unas deducciones determinadas y se obtiene el total de recursos a distribuir en el ejercicio.


Las deducciones aplicables se pueden clasificar en dos grupos:

- Las provenientes de la metodología del Cupo que son las cuantías empleadas para el cálculo del cupo del ejercicio, concretamente:
  - . El cupo pagado en el ejercicio (tanto el provisional como la liquidación del ejercicio anterior).
  - . La cuantía correspondiente a la ertzaintza.
  - . La destinada a la financiación del INSALUD y del IMSERSO.
- El resto de deducciones están recogidas en las diferentes leyes de aportaciones y son:
  - . La financiación de las políticas del artículo 22.3 de la LTH.
  - . La financiación del plan 3R.
  - . El fondo de inversión estratégica.
  - . Las destinadas a la financiación de nuevas competencias asumidas en el periodo.

En el ejercicio 2001, dentro del grupo de resto de deducciones, las únicas aplicables han sido las derivadas de la financiación de nuevas competencias, diferenciándose entre las competencias asumidas en 1997 y el resto de nuevas competencias.

En conjunto todas las deducciones suponen una cuantía importante en relación al total de recursos (entre el 40% y el 42,9% del total de los mismos). Las más significativas son las provenientes del cupo, ya que representan más del 98% del total de deducciones. Por ello, el comportamiento del cupo tiene una gran importancia a la hora de calcular los recursos a distribuir.

GRÁFICO 8.26. GRAFIKOA  
 2001eko ekarpenak. Banatu beharreko baliabideak  
 Aportaciones 2001. Recursos a distribuir



Mila eurokotan / En miles de euros

Banatu beharreko baliabideak epealdiko urte guztietan igo dira (8.27. grafikoa). Horrela, 1997an 3.194 milioi eurokoak baldin baziren, 2001ean 4.478 milioi euroraino iritsi dira. Dena den, beheranzko joera nabari da epealdian:

- 1998an igoera portzentualik handiena gertatzen da (%18,0), eta horren arrazoia da zerga itunduen bilketak kenkariak baino gehikuntza handiagoa izan duela.
- 1999an hazkunde tasa %10,8raino jaisten da zergabilketa moderatuagoa delako.
- 2000. urtean hazkundea %7,3koa da. Kupoari lotutako kenkariak gehitu izanak (%13,9 hain zuzen) eragin egin du urte horretako zergabilketaren igoera handiagoa ilundurik gera dadin.
- Azken ekitaldian, banatu beharreko baliabideek ez dute gehikuntzarik izan (%0,0ko tasa). Zergabilketaren igoera kenkariena baino txikiagoa izatea da horren arrazoia (%2,7 eta %7,0koa hurrenez hurren).

A lo largo del periodo (gráfico 8.27.) los recursos a distribuir aumentan en todos los ejercicios, y de 3.194 millones de euros en 1997 crecen hasta los 4.478 millones en 2001. Sin embargo, se observa una tendencia de desaceleración en el periodo:

- En 1998, año con mayor aumento porcentual, crecen un 18,0%, debido al aumento de la recaudación de los tributos concertados, que fue superior al de las deducciones.
- En 1999 la tasa de crecimiento desciende hasta el 10,8%, al moderarse la recaudación.
- En 2000 el incremento es del 7,3%. En este año el mayor aumento de la recaudación es absorbido por el crecimiento de las deducciones ligadas al cupo, que crecen un 13,9%.
- En el último ejercicio, los recursos a distribuir no aumentan (tasa del 0,0%). La razón estriba en la combinación de un menor crecimiento de la recaudación (2,7%) frente a un aumento de las deducciones del cupo del 7,0%.

GRÁFICO 8.27. GRAFIKOA  
**Ekarpenak. Banatu beharreko baliabideak**  
 Aportaciones. Recursos a distribuir  
 1997-2001





GRÁFICO 8.28. GRAFIKOA  
201eko ekarpenak, guztira  
Total Aportaciones. 2001



Mila eurokotan / En miles de euros

Banatu beharreko baliabideak ekitaldi bakoitzean bildutako zerga itunduekin erlazionatzen baditugu, agerian jartzen da epealdian zehar 1997ko portzentajea (%54) gainditzen dela. Izan ere, 1998an eta 2000an %55,7koa izan da, 1999an %56,8koa –epealdiko handiena- eta azken ekitaldian %54,2koa..

2001ean hiru foru aldundiek Eusko Jaurlaritzari ordaindu behar dizkieten ekarpen orokorren zenbateko osoa aurreko datuetatik abiatuak kalkulatu da (ikus 8.28. grafikoa). Honako hau bereizten da:

- Ekarpene orokor gisa, ekitaldian banatu beharreko baliabide guztien portzentaje bat ordaintzen da. Portzentaje hori ekarpen lege bakoitzak finkatzen du eta koefiziente bertikala du izena. Aztergai dugun epealdian ez du aldaketarik izan: %66,25eko koefizientea egon da indarrean 1997-2001 bosturtekoak.
- Kupoaren metodologiatik datozen kenkariaren zati bat:
  - . Ertzaintzari dagokion zenbateko osoa.
  - . INSALUD eta IMSERSO finantzatzeko bideratutakoaren zati bat.
- Gainerako kenkarietan jasotako kopuruak: eskumen berrien finantzazioari dagozkionak.
- Ekarpene orokorrari egiten zaion murrizpena, Nekazaritzaren Bermerako Europako Fondoan aldundien eskumen izatera pasatzeagatik.

### 8.2.2.3. KOEFIZIENTE HORIZONTALA

Ekarpene legeek koefiziente horizontala kalkulatzeko metodologia ere ezartzen dute. Koefiziente hori kupoari eta ekarpenei dagozkien kargak hiru foru aldundien artean banatzeko erabiltzen den portzentajea da.

Beraz, autonomia erkidegoari dagozkion kalkulak behin lortu ondoren, lurralde bakoitzaren karga indibiduala zein den jakiteko, aldundi bakoitzari 2001eko ekitaldirako dagokion portzentajea aplikatzen zaio (8.29. grafikoa).

Kontuan eduki behar da koefiziente hori ondoko hauei aplikatzen zaiela:

- Kupoaren kasuan, ekitaldian benetan ordaindu denari, hau da, bi hauen arteko baturari:

Si se relacionan los recursos a distribuir con los tributos concertados recaudados en cada ejercicio, se observa que a lo largo del periodo esta relación es superior al 54% correspondiente a 1997, ya que tanto en 1998 como en 2000 es el 55,7%, en 1999 alcanza el máximo con el 56,8%, y en el último ejercicio es del 54,2%.

El total de las aportaciones generales que han de pagar en 2001 entre las tres diputaciones forales al Gobierno Vasco (gráfico 8.28.) se calcula a partir de los datos anteriores, diferenciándose:

- En concepto de aportación general, se abona un porcentaje del total de los recursos a distribuir en el ejercicio. Dicha parte viene determinada en cada ley de aportaciones y se corresponde al coeficiente vertical, que no ha variado en el periodo recogido: el 66,25% vigente para el quinquenio 1997-2001.
- Una parte de las deducciones provenientes de la metodología del cupo:
  - . El total del importe de la ertzaintza.
  - . Parte del importe destinado a la financiación del INSALUD e IMSERSO.
- Las cuantías recogidas en el resto de deducciones: las correspondientes a la financiación de nuevas competencias.
- La minoración de la aportación general debido a que el Fondo Europeo de Garantía Agrícola pasa a ser competencia de las diputaciones.

### 8.2.2.3. COEFICIENTE HORIZONTAL

En las leyes de aportaciones también se recoge la metodología para el cálculo del coeficiente horizontal, que es el porcentaje utilizado para la repartición de las cargas correspondientes al Cupo y a las Aportaciones entre las tres diputaciones forales.


Por lo tanto, una vez obtenidos los cálculos a nivel de la comunidad autónoma, para determinar la carga individual de cada territorio histórico se le aplica el porcentaje (gráfico 8.29.) correspondiente a cada una de las diputaciones para el ejercicio 2001.

Ha de tenerse en cuenta que este coeficiente horizontal se aplica en:

- El Cupo, sobre la cuantía realmente pagada en el ejercicio, es decir, sobre la suma de:

- . Ekitaldiko kupo likidoa.
- . Aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioa.
- . El Cupo líquido del ejercicio.
- . La liquidación del Cupo del ejercicio anterior.
- Ekarpunen kasuan, lehen azaldu dugun koefiziente bertikala aplikatu ondoren lortutako balioei.
- Las Aportaciones, sobre los valores obtenidos una vez aplicado el coeficiente vertical anteriormente explicado.

**GRÁFICO 8.29. GRAFIKOA**  
**Ekarpen koefizienteak**  
**Coefficientes de Aportación**



Gipuzkoako koefiziente horizontala kupoaren eta ekarpenen zenbatekoei aplikatuz gero (8.22 eta 8.28. grafikoetan jasotakoei) Foru Aldundi honek ordaindu duen guztia lortzen da. Zerga itunduengatik bildutakoari karga horiek kentzen bazaizkio, Gipuzkoako baliabide erabilgarriak lortzen dira.

Epealdiko baliabide erabilgarriak 1997an 522.501 mila eurokoak izatetik 681.585 mila eurokoak izatera pasa dira 2001ean. Kopuru horiek (8.30. grafikoa) zerga itunduengatik bildutakoaren heren bat baino gutxiago dira. Baliabide gehien hartzen dituen kontzeptua Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak dira. Hona hemen 2001eko banaketa:

- Ekitaldian ordaindutako kupoak Gipuzkoan zerga itunduengatik bildutakoaren %12,7 hartzen du.
- Ekarpinak %62,0 dira.
- Gainerako %25,3a ekitaldiko baliabide erabilgarriak dira.

Al aplicar el coeficiente horizontal correspondiente a Gipuzkoa sobre las cuantías de Cupo y Aportaciones, recogidas en los gráficos 8.22. y 8.28., se obtiene el total pagado por esta Diputación Foral. Si al total recaudado por tributos concertados se le restan estas cargas, el resultado representa los recursos disponibles de Gipuzkoa.

Los recursos disponibles a lo largo del periodo han pasado de 522.501 miles de euros en 1997 a 681.585 miles en 2001. Estas cuantías (gráfico 8.30.) representan menos de un tercio de la recaudación por tributos concertados. El concepto que más recursos absorbe es el correspondiente a las Aportaciones al Gobierno Vasco. La distribución en 2001 ha sido la siguiente:

- El Cupo pagado en el ejercicio ha supuesto el 12,7% de la recaudación guipuzcoana de tributos concertados.
- Las Aportaciones han concentrado el 62,0%.
- El restante 25,3% corresponde a los recursos disponibles del ejercicio.

GRÁFICO 8.30. GRAFIKOA

**Kupoa eta ekarpenak direla-eta egindako ordainketa eta Gipuzkoako baliabide erabilgarriak**  
 Pago realizado en concepto de Cupo y Aportaciones y recursos disponibles de Gipuzkoa





GRÁFICO 8.31. GRAFIKOA

**Gipuzkoako bilketaren eta ekarpenaren arteko aldea**  
 Diferencia entre la recaudación y la aportación de Gipuzkoa



Autonomia erkidegoa Estatuarekin alderatzean ikusten genuen bezala, hemen ere diferentziak ageri dira ondoko hauen artean:

- Gipuzkoak kopuru osoarekiko bildutakoaren eta
- Dagokion ekarpen indizearen artean.

Diferentzia horiek ikusita uler daiteke zergatik aldatzen diren urte bateko baliabide erabilgarriak aurreko urtearen aldean. Horrela:

- Diferentzia hori positiboa bada, baliabideak sortzen dira Gipuzkoaren alde, beste bi lurraldeekin konparatuta bildu duena karga orokorrei egiten dien ekarpena baino handiagoa izan delako.
- Aldiz, diferentzia negatiboa bada, baliabideak galten dira.

8.31. grafikoan ikus daitekeenez, Gipuzkoako zergabilketak EAEn bildutako zerga itundu guztiekiko hartzen duen portzentajea ekarpen indizea baino handiagoa izan da epealdiko lehen hiru urteetan; aldiz, azken bi ekitaldietan portzentajeak zeinu negatiboa hartzen du. Horrek esan nahi du Aldundi honek 2000n eta 2001ean egindako ekarpena bildutakoa baino handiagoa izan dela eta horren ondorioz baliabideak galdu dituela.

#### **8.2.2.4. UDALAK FINANTZATZEKO FORU FONDOA**

Aldundi bakoitzeko sarrerei kupoarengatik eta ekarpenengatik ordaindu beharreko zenbatekoa kentzen bazaie lurralde bakoitzeko baliabideak lortzen dira. Honetarako erabili behar dira baliabideak:

- Udalerriak finantzatzeko.
- Foru aldundi bakoitzaren kudeaketa propioarako.

Baliabideak Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren bitartez banatzen dira udalerrien artean, eta kalkulua lurralde bakoitzeko araudiaren arabera zehazten da.

Al igual que pasaba con la comunidad autónoma con respecto al Estado, existen diferencias entre:

- La parte recaudada por Gipuzkoa respecto al total.
- El índice de aportación correspondiente.

Estas diferencias explican las variaciones de un año con respecto al anterior en cuanto a los recursos disponibles. Así:

- En caso de que la diferencia sea positiva, se generan recursos a favor de Gipuzkoa ya que, con respecto a los otros dos territorios históricos, ha recaudado más de lo que aporta a las cargas generales.
- Si la diferencia es negativa, se produce una pérdida de recursos.

Según recoge el gráfico 8.31., el porcentaje que representa la recaudación guipuzcoana sobre el total de los tributos concertados recaudado en la CAPV ha sido superior al índice de aportación que le correspondía en los tres primeros años del periodo; por el contrario, en los dos últimos ejercicios cambia de signo y se torna negativo. Es decir, esta diputación ha aportado en mayor proporción que su recaudación en 2000 y en 2001, por lo que ha sufrido una pérdida de recursos.

#### **8.2.2.4. EL FONDO FORAL DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL**


Si a los ingresos de cada diputación se detrae la cuantía que han de pagar por cupo y aportaciones, se obtienen los recursos de cada territorio. Estos recursos han de destinarse a:

- La financiación de los distintos municipios.
- La gestión propia de cada diputación foral.

La repartición de los recursos entre los distintos municipios se realiza a través del Fondo Foral de Financiación Municipal, siendo su cálculo dependiente de la normativa foral de cada territorio histórico.

GRÁFICO 8.32. GRAFIKOA

Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak. Udalek duten partaidetzaren kalkulua  
 Fondo Foral de Financiación Municipal. Cálculo de la participación de los ayuntamientos  
 2001



Mila eurokotan / En miles de euros

8.32. grafikoa ikusgai jarri da zein izan den Gipuzkoari dagokionez 2001ean Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak. Fondoak kupoari eta ekarpenei dagozkien kopuruak jasotzen ditu, ekitaldiko koefiziente horizontala behin aplikatuta. Honako kalkuluak egin behar dira:

- Banatu beharreko baliabideak ezagutzeko honela jokatzeko da: lehendabizi, aldundi honek bildutako zerga itunduak hartu behar dira, interesak gehitu eta BEZak ordeztutako sarrerak kendu (Gipuzkoari dagozkionak).
- Ateratzen den emaitzatik lurralde historikoak EAeko zenbateko osoaren gainean aipaturiko koefiziente aplikatuta ordaindu behar dituen kenkari hauek kentzen dira: kupoarenak eta ekarpen orokor nahiz berezienak.
- Emaitza lurraldeak udalen eta Aldundiaren artean banatzeko dituen baliabideak dira.
- Banaketa horretan, portzentaje bat Gipuzkoako udaletara doa, 1997. urteaz geroztik %54,24koa izan dena. Portzentaje hori aplikatu ondoren, udalen artean banatu beharreko zenbatekoa lortzen da.
- Kopuru horri honako zuzenketak egiten zaizkio:
  - . Aurretik kendu diren eta bakar-bakarrik Foru Aldundiak finantzatu behar dituen kontzeptuak gehitzen zaizkio.
  - . Udalek jasan behar duten Elkartasun Fondoaren zatia kentzen da. Ekitaldi honetan Elkartasun Fondoak Aldundiaren aldekoa gertatu denez, gastu bat ekarri beharrean sarrera bat ekarri du. Udalen aldekoa ere gertatu da, eta horren ondorioz, haren zenbatekoa kendu beharrean gehitu egin zaie.

Epealdian zehar, Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren zuzkidura urtero igo da, 2000. urtean izan ezik. Ekitaldi horretan, izan ere, banatu beharreko baliabideak kenkariak baino gutxiago gehitu dira, eta horren ondorioz Gipuzkoako baliabideak 20.716 mila euro jaitsi dira. Hori dela-eta, udalen artean 11.237 mila euro gutxiago banatu dira. Dena den, Elkartasun Fondotik datorren zuzenketa aplikatzen bada, galera hori 4.025 mila eurokoa da azkenean, hau da, %1,6ko jaitsiera gertatu da.

El Fondo Foral de Financiación Municipal de Gipuzkoa para 2001 (gráfico 8.32.) presenta las cuantías correspondientes al Cupo y a las Aportaciones una vez aplicado el coeficiente horizontal del ejercicio. Los cálculos a realizar son los siguientes:


- Para conocer los recursos a distribuir se toman los tributos concertados recaudados por esta diputación, se le añaden los intereses y se le deducen los ingresos sustituidos por IVA que corresponden a Gipuzkoa.
- A este total se le restan las deducciones, que están compuestas por las cuantías correspondientes al Cupo y a las Aportaciones, tanto general como específicas, y que han de ser abonadas por el Territorio Histórico y calculadas aplicando dicho coeficiente sobre el total correspondiente a la CAPV.
- El resultado son los recursos del Territorio a distribuir entre los municipios y la Diputación.
- En este reparto se destina un determinado porcentaje a los municipios guipuzcoanos; este porcentaje es del 54,24% desde 1997. Una vez aplicado dicho porcentaje se obtiene la cuantía a repartir entre los municipios.
- A dicho importe se le realizan las siguientes correcciones:
  - . Se le añade la parte correspondiente a los conceptos deducidos anteriormente y cuya financiación ha de ser soportada únicamente por la Diputación Foral.
  - . Se deduce la carga correspondiente al Fondo de solidaridad que han de soportar los municipios. En este ejercicio, como este Fondo ha sido a favor de esta Diputación, en lugar de un gasto ha supuesto un ingreso. En consecuencia, también ha sido favorable a los municipios y se les ha sumado su importe en lugar de restarlo.

A lo largo del periodo la dotación al Fondo Foral de Financiación Municipal aumenta todos los años salvo en 2000, año en que el aumento de los recursos a distribuir es inferior al incremento de las deducciones, por lo que los recursos del territorio descienden en 20.716 miles de euros. Debido a esta circunstancia la parte destinada a ser distribuída entre los municipios desciende en 11.237 miles. Dicha pérdida se ve reducida tras aplicar la corrección derivada del Fondo de Solidaridad ascendiendo finalmente a 4.025 miles de euros, lo que supone un descenso del 1,6%.

Azken ekitaldian, banatu beharreko baliabideak %3,6 gehitu badira ere, bidezko kenkariak aplikatu ondoren, lurraldeko baliabideak %1,7 baino ez dira igo, eta Foru Fondoaren zuzkidurak %1,0ko igoera izan du soilik, portzentaje eskasa 1999an lortutakoa –epealdiko handiena– gainditzeko.

En el último ejercicio, frente a un aumento del 3,6% de los recursos a distribuir, tras aplicar las deducciones correspondientes, los recursos del Territorio se incrementan sólo en un 1,7%, y la dotación al Fondo Foral en un 1,0%, porcentaje insuficiente para superar el nivel alcanzado en 1999, el máximo del periodo.

**GRÁFICO 8.33. GRAFIKOA**  
**Lurraldeko baliabideen eta Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren zuzkiduraren bilakaera**  
 Evolución de los recursos del Territorio y de la dotación al Fondo Foral de Financiación Municipal 1997-2001



### 8.2.3. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI EGOTZITAKO ZERGA ITUNDUAK

Ekitaldi bakoitzean biltzen diren zerga itundueta-tik, zati handi bat erakundearteko konpromisoer aurre egiteko erabiltzen da, eta beste zatia Foru Aldundiaren kudeaketa propiorako bideratzen da. Azken zati hori GFari egotzitako zerga itunduak direla esaten da.

8.34. grafikoak erakundearteko konpromisoengatik ekitaldi bakoitzean benetan ordaindu diren zenbatekoak erakusten ditu:

- Benetan ordaindutako kupoa.
- Ekarpenak.
- Udalak Finantzatzeko Foru Fondo.

### 8.2.3. TRIBUTOS CONCERTADOS IMPUTADOS A LA DFG

De los tributos concertados recaudados en cada ejercicio, una parte muy importante hace frente a los distintos compromisos institucionales, y es la cuantía restante la que se destina a la gestión propia de la Diputación Foral. A esta parte es a la que se considera como tributos concertados imputados a la DFG.

El gráfico 8.34. presenta las cuantías realmente pagadas en cada ejercicio en concepto de compromisos institucionales:

- El Cupo realmente pagado.
- Las Aportaciones.
- El Fondo Foral de Financiación Municipal.

Erakundearteko konpromisoak %84 dira Foru Aldundiaren zergabilketarekiko, eta epealdiko lehen eta azken ekitaldietan portzentaje hori bi dezima baino ez da aldatzen:

- 1997an %83,8 hartzen dute.
- 2001ean zerga itunduengatik izandako sarreraren %84,2 dira.

Kontzeptu bakoitza aztertuz gero ikus daiteke ordaindutako kupoaren aldakortasuna ekarpenek ageri dutenarekin konpentsatzen dela; izan ere, kalkuluaren metodologia dela eta, ekarpenak kupoaren kontrako norabidean aldatzen dira. Epealdian zehar bi kontzeptuek pisua irabazten dute, 1997an %72,9 izatetik %74,7 izatera pasatzen direlako 2001ean. Aldiz, Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak alderantziz jokatu du, 1997ko %10,9tik %9,6raino jaisten baita epealdiko azken ekitaldian.

El peso de los compromisos institucionales con respecto a la recaudación de la Diputación Foral es del 84%, y varía sólo en dos décimas porcentuales en los ejercicios de inicio y final del periodo:

- En 1997 representa el 83,8%.
- En 2001 representa el 84,2% de los ingresos por tributos concertados.

Analizando cada concepto se aprecia que la variabilidad del Cupo pagado se compensa con la de las Aportaciones, ya que por la propia metodología del cálculo varía en sentido contrario al Cupo. Ambos conceptos a lo largo del periodo cobran mayor peso ya que de suponer el 72,9% en 1997 llegan a absorber el 74,7% de la recaudación de los tributos concertados en 2001. El Fondo Foral de Financiación Municipal, en cambio, se mueve en sentido inverso y de un 10,9% en 1997, desciende hasta el 9,6% en el último ejercicio.

**GRÁFICO 8.34. GRAFIKOA**  
**Gipuzkoari egotzitako zerga itunduak**  
 Tributos concertados imputados a Gipuzkoa







GRÁFICO 8.35. GRAFIKOA  
**Gipuzkoari egotzitako zerga itunduak. Bilakaera**  
 Tributos concertados imputados a Gipuzkoa. Evolución



◆ Zerga itunduak / Tributos concertados  
 ■ GFARI egotzitako zerg.itund. / Tributos concert. imputados a DFG



◆ Erakundearteko konpromisoak / Compromisos institucionales  
 ■ Ordaindutako kupoa / Cupo pagado  
 ▲ Ekarpenak / Aportaciones  
 × UFFF / FFFM

Zerga itunduek eta Gipuzkoari egotzitakoek epealdian izan duten bilakaerari erreparatuz gero (ikus 8.35. grafikoa) agerian jartzen da biak gero eta motelago gehitzen direla eta hazkunde tasa desberdinak dituztela:

- 1998an, bilketa %15,1 gehitzen den bitartean, Gipuzkoari egotzitako zergen igoera %13,4koa da.
- 1999an eta 2000an antzeko hazkunde tasak ikusten dira: %9,1 eta %7,3 zergabilketaren kasuan, eta %9,2 eta %7,2 lurraldeari egotzitako zergetan.
- 2001ean aldeak ageri dira berriro: zerga itunduak %3,6 gehitzen dira, eta Foru Aldundiari egotzitakoak %2,1.
- Kontzeptu horien artean diferentziak ageri diren bi ekitaldietan, erakundearteko konpromisoen igoera zerga itunduena baino hiru dezima portzentual handiagoa da. Batera harturik, konpromisoen bariazioa zergek izan dutenaren parekoa da; hala ere, lehenengo barruan portaera desberdinak ikusten dira kupoa eta ekarpenak kalkulatzeko metodolo-

La evolución de los tributos concertados y de los imputados a Gipuzkoa a lo largo del periodo (gráfico 8.35.) muestra que ambos aumentan cada vez con menor intensidad al tiempo que presenta diferencias en las tasas de crecimiento:

- En 1998, frente a un aumento de la recaudación del 15,1%, los tributos imputados a Gipuzkoa crecen un 13,4%.
- Tanto en 1999 como en 2000 las tasas de crecimiento son similares: 9,1% y 7,3% en el caso de la recaudación total, y 9,2% y 7,2% los tributos imputados al Territorio.
- En 2001 vuelve a diferenciarse: los tributos concertados aumentan un 3,6%, y de ellos los imputados a la Diputación Foral crecen sólo un 2,1%.
- En los dos ejercicios en que existen diferencias entre ambos conceptos, los compromisos institucionales muestran un incremento mayor en tres décimas porcentuales al incremento de los tributos concertados. En conjunto, la variación de los compromisos es similar al de los tributos, pero dentro de los primeros existen comportamientos diferen-

giaren ondorioz, eta portaera horiek azaltzen dute zer dela-eta izan daitekeen desberdina zerga itunduen bilakaera eta Gipuzkoako Foru Aldundiari egotzitako zergena.

Kupoari dagokionez, aldeak agertzen dira bi arrazoi direla medio:

- Kupoaren eguneratze indizearen bilakaera desberdinagatik. 2001ean indize horrek %5,7ko bilakaera izan du, Gipuzkoako zerga itunduen baina handiagoa.
- Kupoaren likidazioak ondoz ondoko urteen artean eragin dituen desplazamenduengatik. 2001ean ordaindutako kupoa ere likidatutakoa baino handiagoa izan da, 102 milioi euro handiagoa hain zuzen.

Ekarpenei dagokienez, hona hemen izandako desbideraketen jatorria:

- EAeko zerga itunduen bariazio tasa %2,7koa izan da, Gipuzkoako %3,6 baino gutxiago.
- Gipuzkoako ekarpen horizontalaren indizea %32,72tik %32,93ra pasa da, eta horrek lurraldeko baliabideak murriztu ditu.

Desbideratze horiek arinduta geratu dira UFFFren bilakaerarekin, %1,0 bakarrik egin baitu gora, Gipuzkoako zerga itunduen baina gutxiago, eta horri esker, kupertik eta ekarpenetatik datozen beheranzko tentsioak konpentsatu egin dira.

Laburbilduz, desbideratzeak sailkatu ditzakegu baliabide erabilgarrietan eragiten dituzten ondorioak kontuan hartuta:

